

D R O G A K

U
Z
T
E
R
I
K



B
A
D
A
G
O

- ❖ ELKARRIZKETA NAGUSIA: "GIZAKIA HELBURU" ("PROYECTO HOMBRE")-TIK PASATAKO JON ETXEBERRIA DROGAZALE-OHI GOIERRIARRARI.
- ❖ MUNDU GUZTIAN EZAGUNA DEN "IDIAZABAL" GAZTA EGITEKO SORTU DA "ORDIZIA GAZTANDEGI KOOPERATIBA"
- ❖ BERE GARAICO ORMAIZTEGIKO BALNEARIOA EZAGUTUZ
- ❖ ZELESTINO BERASATEGI ZEGAMAR DONOSTIARTUAREN EHUN ETA URTE GEHIAGOKO BERTSOAK.
- ❖ HERRIETATIK GOIERRI, AGENDAN, ZAHARRAK BERRI, BERRIAK LABUR ETA TXUTXUMUTXUAK, ITSASONDOKO HARROBIAK, LAZKAOKO EZIZENAK, e.a., KARTEN SAILEAN, SAIL BERRIAK: GOIERRITARRAK MUNDUAN, BERTAKO KIROLA, MUSIKA...

URTE BERRI ON AIXKIRE!



MUEBLES
Ordizia
HALTZARIAK

46, Posta Kutxa
ORDIZIA

Tfnoak: 88 23 50
88 23 54
88 11 92
88 53 50



IRVROK S.L.
ZERBITZU OFIZIALA



N-1 Madrid-Irun Errepidea
Tfnoak: 88 51 50 - 88 51 54
OLABERRIA

RAIMON MUSIKAL

JAMO PROFESIONALA
BANATZAILE OFIZIALA

Korda eta Haize musikagailuak

ZALDIZURETA, z/g.
Tfnoa: 88 55 20

BEASAIN

GURPIL
BIZIKLETAK

Bideluze Plaza, z/g. - Telf: 88 89 51
Nafarroa Etorbidea, 3. - Telf: 88 21 03
20200 B E A S A I N



OKINDEGIA
DIETETIKA

Santa Maria, 8 - Tel. 881211 - ORDIZIA

HIDALGO

BITXIDENDA • ERLOJUDENDA

LEGAZPI, 4
Tfnoa: 88 04 06

ORDIZIA

MUJIK AUTOAK S.M

JABIER Mujika Txapartegi
tailer eta zerbitzu-burua

N-1 Errep. Nagusia., 419.Km
Tfna: 88 74 00 / 88 74 04
Fax: 88 79 52 BEASAIN



KONTSULTORIO
MEDIKU-KIRURGIKOA

Goierritarrentzako mediku zerbitzu askotarikoak
ordua aurretik eskatuz. Tfnoa: 88 57 50 - 88 5854

Nafarroa etorbidea, 25 - 2. BEASAIN

BEASAINGO
TABERNARIEN
ELKARTEA

GOIERRITARRA HILABETEKARIA

Bertako txalaparta eta albistaria

20. zenbakia. 92.eko Urtarrila.

Debaldeko alea. Tirada: 2.000 ale. 1.700 harpidedun.

Argitaratzailea: "Goierritarrak" Kultur Elkartea. Dorre-etxea behea (Correos azpia). Tfna: 889612. 124 posta kutxa. Ordizia.

Izena emango dizu GOIERRITARRAN iragartzeak, aldizkari bat baino gehiago baita honakoa. Dei 88 96 12 telefonora.

Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren diru-laguntza jaso du. Goierriko Udal askoren diru-laguntza jaso izan du azken bi kurtsoetan era berean eta datorren kurtso-rako laguntzen zain gaude. Ez da inolako hitzarmenik oraindik, zoritxarrez.

Dirulaguntzak eman dizkigute: Itsasondo, Zerain, Arama eta Altzagak.

Agindu: Gipuzkoako Foru Diputazioak, Idiazabal, Lazkao, Beasain eta Ordiziako Udalek.

Erredakzio arduraduna: Jon Mikel Arano Aramendi.

Publizitate arduraduna eta laguntzailea: Mikel Albisu.

Aholkulariak: Tere Irastortza eta Andoni Sarriegi.

Kolaboratzaileak: Andoni Sarriegi, Maite Erauskin, Mikel Aramendi, Rufino Iraola, J.I. Iturrioz, Edurne Garmendia, Patxi Zubizarreta, Jexux Lete "Ibai-Ertz", Ane Martin, Gotzon Mintegi, Loinaz Agirre, Nekane Altuna, Elisabet eta Garbiñe Ezkurdia, "Maizpi", Agus Barandiaran, Jokin Sarasola...

Gure eskerrik beroenak: Goierriko Udal laguntzaileei. "Argia", Goimen, "Montte" eta "Egunkaria"-ri. Era batera edo bestera lagundu nahi liguketenei, gauzak errazten dizkiguzuenoi eta nola edo hala parte hartzeko irrikitan zaude-tenoi.

Fotokonposaketa, maketazioa eta inprimaketa: ANTZA. Lasarte-Oriako Industrialdea, 1-2 pabiloiak. Tfnoa: 371545.

Lege Gordailua:SS-926/89


GOIERRITARRA aldizkariak ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.



«Goierritarrak»
Kultur Elkartea

† Aldizkaria inprentan dagoela hil zaigu On Joxemiel Barandiaran. (Goian bego)

Halere, txutxumutxuetan eta "Zaharrak berri" sailetan esanak mantentzea beste erremediorik ez dugu.



GOIERRITARRA etxean jaso nahi dut

NIK ERE HARPIDEDUN IZAN NAHI DUT

IZEN-DEITURAK

HELBIDEA

HERRIA..... TLF.

Ordiziako 124 Posta Kutxara bidali

DOHAIN GOIERRIKO ZENBAIT UDALEI-ESKER

Lana

✓ Euskarazko itzulpenak egiten ditut. Denetarik. Gotzon Mintegi, Ordizia. 886477-ra dei, asteartetan ezik.

✓ "Otsaila" itzulpen zerbitzua. Edozein motatako testuak itzultzen ditugu. Lau hizkuntzatan: Frantsesa-Ingelesa- Euskara-Gaztelania. Gure helburua entresia, denda, eskola, instituzio publiko nahiz pribatuei itzulpen lan zerbitzu egokia eskeintzea da. Urdaneta, 18. Tlf.: 889325. 20240 Ordizia.

✓ Dendako saltzaile esperientziaduna lanerako prest. 889823 tfnoa, Ordizia.

✓ Neska, administratiba, informatika eta gestio-lanetan aditua, ofizina edo tendako dependiente bezala egiteko prest: dei 161320ra.

✓ Neska, etxe, bulego edo sukurtsalen garbiketetan aritzeko pronto. Interesatuak, dei 889932.

✓ Etxeko ofiziorako, umeak zaintzeko prest nagoen neska bat naiz. Dei 889070 telefonora, arratsaldeko 5etatik 8-etara.

Salmentak

✓ PC-X10 ordenadore konpatiblea (512k memoriaduna, 2 disketera 31'erdikoa) salgai. 50.000 pzta. Xehetasunak 886182 telefonon.

✓ Larru zurizko abrigua salgai, 40 tailakoa, 5.000 pzta. 882467.

✓ Mobilette bat salgai, modelu zaharra, 10.000 pzta. 881172.

✓ R-5a salgai, 50.000 pzta, SS-G, egoera onetan. 884152 tfna. Gaez.

Etxebizitzak

✓ Pisua alokatzen da, ederra eta egutera, jantzirik, estreinatzeaz, 3 gela, saloia, bainu, trasteroa, 3 urte edo gehiagotarako. 880492, gaueko 9etatik 11etara.

✓ Pisua salgai Ordizian: 884376.

✓ Etxebizitza-buhardila behar dugu errentan Ordizia, Beasain, Goierrialdan: 887732, arratsaldeaz.

✓ Etxebizitza alokatzen da Lazkaon. 161272 tfna.

Agurak

✓ Gu Geu: Izarraitzetik Txindokiraino/ bide luzea izaki/ Murumendiko sorginak ere/ gu nortzuk geran bada/ elkarrengana jo dezagun bada/ trikitiaren aitzaki./ Festarik festa auzo ta herri/ alaitu nahirik bazterrak/ bihotz prestatuak berotzen ditu/ trikitiaren sugarrak/ etxeratzean kantatzen digu/ egunsentiko oilarrak.

Makalo.

AUTOBUS ORDUTEGIAK BEASAINDIK

Pesa Autobusak

Norabidea: Idiazabal-Ordizia:

Astelehenetik ostiralera: 5,10- 6,15- 7,20- 8,10- 8,40- 9,40- 10,25- 11,10- 12,10- 12,40- 13,10- 14,10- 14,40- 15,10- 16,10- 16,40- 17,10- 17,40- 18,10- 18,40- 19,10- 20,10- 21,10- 22,10.

Larunbatetan: 5,10- 8,40- 9,40- 10,25- 11,10- 12,10- 13,10- 14,10- 15,10- 16,10- 17,10- 18,10- 19,10- 20,10- 21,10- 22,10.

Igande eta Jaietan: 11,40- 16,40- 17,40- 18,40- 19,40- 21,40.

Norabidea: Ordizia-Idiazabal:

Astelehenetik ostiralera: 5,40- 7,10- 7,40- 8,50- 9,10- 10,10- 10,55- 11,40- 12,40- 13,10- 13,40- 14,40- 15,40- 16,40- 17,10- 17,40- 18,10- 18,40- 19,10- 19,40- 20,40- 21,40- 22,40.

Larunbatetan: 5,40- 7,40- 9,10- 10,10- 10,40- 11,40- 12,40- 13,40- 14,40- 15,40- 16,40- 17,40- 18,40- 19,40- 20,40- 21,40- 22,40.

Igande eta Jaietan: 13,10- 17,10- 18,10- 19,10- 21,10- 22,10.

Sarasola Autobusak

Norabidea: Beasain-Lazkao-Ataun:

Astegun/lanegunetan: 7,45- 9,15- 9,45- 11,00- 15,40- 17,25- 18,25- 19,00- 20,00- 21,15- (14,25 eskola- egunetan).

Igande eta Jaietan: 16,25- 17,25- 18,25- 19,00- 20,00- 21,05- 21,35- 22,15.

Gaiara Autobusak

Norabidea: Zegama-Beasain:

Astegunak: 7- 8,15- 13- 15- 17.

Igande eta Jaietan: 17- 18.

Norabidea: Beasain-Zegama:

Astegunak: 7,30- 12- 13,30- 15,30- 17,30- 19.

Igande eta Jaietan: 17,30- 22,15.

Estellesa Autobusa

Lizarrar-Donostia: 10,20- 18,20. Geltokia: Bideluze Pl.

Donostia-Lizarrar: 8,45- 16,45.

Geltokia: Erauskin Pl.

Pesa Autobusak

Eibar-Iruñea: 8,35- 14,35 (19,05

Igan./Jaletan) Iruñea-Eibar: 11,50- 19,20- (21,50 Igan./Jaletan)

Arrasate-Donostia: 8,45- 15,15- (10,30- 18,45 Igan./Jaletan)

Donostia-Arrasate: 19,50- (21,20 Igan./Jaletan)

Donostia-Oñati: 13,20.

Bilbo-Tolosa: 9,35- 19,05.

Tolosa-Bilbo: 7,55- 17,25.

Geltokiak: Nafarroa Etorbidea, 8.

Oharra: Ordutegiok balidoak dira, salbu eta akatsik bada edo enpresak aldaketarik egiten ez duen.

Telefono interesgarriak

Udaletxea	88 59 00
Gizarte-Laguntza	88 59 04
Udaleko Euskara Zerbitzua	88 75 12
Bulego Teknikoa	88 38 60
Udaltzaintza / Suhiltzaileak	88 13 55
Ertzaintza	88 73 50 / 88 09 61
Osasun Etxea (Anbulatorioa)	88 07 59 / 88 86 50
Osasun Etxea (Larrialdiak)	88 09 67
Gurutze Gorria	88 28 35 / 88 79 99
Adimen-Osasun Zentrua	88 67 62 / 88 67 66
Arangoiti Agureen Egoitza	88 01 56
Erretiratu Etxea	88 48 04
Antzizar Polikiroidegia	88 79 00
Udal-Biblioteka	88 90 93
Udal-Euskaltegia	88 90 94
B.O.K. Musika-Kontserbatorioa	88 90 95
Taxiak	88 03 67
RENFEko geltokia	88 08 53
Bake-Epaitegia	88 16 81
Alkartasuna Lizeoa	88 26 84
La Salle Ikastetxea	88 01 39
Loinazpe Ikastetxea	88 26 44
Murumendi Ikastetxea	88 00 25
San Jose Ikastetxea	88 20 95
Txindoki Ikastetxea	88 07 53
Goierriko Lanbide-Eskola	88 00 62
Oiarbide Ehorztetxea	88 26 21

 BEASAINGO UDALA. EUSKARA BATZORDEA

EKITALDIAK

Segura: *Fandango eta Arin-arin! VII Txistu Musika Lehiaketa*

1.- Konposizioan, ohizko txistu familiar tresnak erabiliko dira, hau da: 2 txistu (fa sostenituan), Silbotea (Si naturalean), Danbolina eta danborra "Adlibitum" utziko dira.

2.- Irabazle gertatzen diren Orripeko eta Ari-Ariak 1.992-ko Ekainean Seguran izango den Euskadiko Dantza Txapelketan joko dira.

3.- Konposatzaile bakoitzak, Orripekoak, Ari-Ariak edo bietatik aurkeztu ditzake (nahi duen hainbeste). Orripeko eta Ari-Ari irabazleak, autore batenak edo birenak izan litezke.

4.- Lanak argitara gabeak eta publikoan jo gabeak izan beharko dute.

5.- Baloraziorako erabiliko diren kriterioak, hauek izango dira:

- Dantzarako egokitasuna (kontuan izan, dantza txapelketan jo behar direla).
- Doinuen aberastasuna eta edertasuna.
- Armonizapena.
- Doinuaren esaldiak zortzi (errepikatuta) edo hamasei konpasetakoak beharko lirake (Dantza Txapelketan sei hamaseiko jotzen dira).
- Ez da onartuko neurri herrikoirik.

6.- Bi sari izango dira; bat Orripekoarentzat eta Ari-Ariarentzat bestea. Bakoitza 35.000 pesetakoa.

7.- Aurkezten diren lanen jabe Segurako Udala geldituko da, egokiena iruditzen zaiona egiteko.

8.- Epaimahaian, Udaletxeko arduradun bat eta musika eta dantza munduan jakitunak izango dira.

9.- Irabazleei sariak 1.992-ko Ekaineko Dantza Txapelketan emago zaizkie.

10.- Lanak 1.992-ko Urtarrilaren 31-rako Segurako Udaletxera bidali behar dira. Ez dute egilearen izenik eraman behar, izenburua bakarrik baizik. Aparteko zorrotxo itxi batean jarriko diran izenburu horri dagokion izena eta zuzenbidea.

Legorretako Filme emanaldiak

Urtarrilak

5/6: "Regreso al lago azul".

12/13: "Regreso al futuro III".

19/20: "Colmillo blanco".

26/27: "Karate Kid III".

Beasaingo Euskararen Ordenantza

Urtarriletik aurrera, Beasaingo Udaleko Euskara Batzordea, herriko Elkarte eta taldeekin harremanetan jarriko da Euskararen Ordenantza betetzeko bi-deak urratzeko eta Azterketa Soziolinguistikoaren ondorioek izendatutako plangintza eta hitzarmenak gauzatzen hasteko.

LAZKAO: Euskararen kale-neurketa

	HAURRAK 0-14		GAZTEAK 15-24		HELDUAK 25-60		ZAHARRAK 60tik GORA	
	Eusk.	Erd.	Eusk.	Erd.	Eusk.	Erd.	Eusk.	Erd.
KOPURUA	157	76	114	84	150	318	29	68
EHUNEKOA	%67	%33	%57	%43	%32	%68	%29	%71


GUZTIRA	%45 Euskaraz
	%55 Erderaz

Datu hauek kalean entzuten den hizkuntza neurtzen dute, besterik gabe. Bestetik, hauen bilketa udazkenez egin zen, hiru egunetan, goizez eta arratsaldez.

Umeak dira euskara gehien erabiltzen dutenak. Euskara umeen hizkuntza ote?

Badirudi gazteek euskara erdara baino gehiago erabiltzen dutela. Kasualitatea ala benetan gazteak biltzen diren lekuetan hori gertatzen da?

Ba al zenekien hiru heldutatik batek bakarri egiten duela euskaraz? Eta zaharrek zer, berdin die ala ahaztu egin zaie?



Lazkaoko Euskal Herrian Euskaraz

Telefono interesgarriak

Gurutze Gorria	27 22 22
D.Y.A.	46 46 22
Anbulategia (Ordizia)	88 11 65
Anbulategia (Beasain)	88 07 59
Eskualdeko Ospitalea	72 38 13
Udaletxea (Ertzantza)	88 73 50
Udalzaingoa	88 40 05
Suhiltzaileak	88 13 62
Bulego Nagusiak	88 58 50
Ongizate Saila	88 82 50
Obralan Bulegoa	88 24 65
Kontuhartzailetza	88 76 00
Kultur Etxea	88 12 80
Herri Antzokia	88 07 44
Majori Kiroldgia	88 93 33
RENFE	28 30 39
Oiangu Baserria	88 91 06



ORDIZIAKO UDALA. EUSKARA ZERBITZUA

Telefono interesgarriak

Udaletxea	88 64 08
Ertzantza	88 73 50
Anbulategia	88 87 55 / 88 26 32
Gurutze Gorria	27 22 22
D.Y.A.	46 46 22
Larrialdiak	88 09 67
Suhiltzaileak	88 13 62
Maizpide Euskaltegia	88 92 31
A.E.K. Euskaltegia	88 93 40
S. Prudentzio Ikastetxea	88 26 30
S. Benito Ikastola	88 08 00
Parrokia	88 02 29
Sarasola Autobusak	88 02 59
RENFE	88 08 53
Polikiroldegia	16 09 34



LAZKAOKO UDALA. EUSKARA BATZORDEA

Mediokreon patua

Bazen behin, 1989rako karrera amaitu zuen pertsonai bat. Ikasle ona, nahiz ez amorratu izan. Bost urtetan ikasketak gainditutakoa.

Eta ekainean, lan merkatuan sartu zen oso animosa. INEMeko bulegoan izena eman, prentsan azaltzen ziren lan postuetarako ere bai, Hezkuntz Ordezkaritzan apuntatu eta bueno, harrapatzen zuen leku guzietan, muturra sartzen zuenetakoa.

Hasi zitzaizkion handik eta hemendik deika, azterketetara joan zedin. Baita prestu-prestu agertu ere. Psikoteknikoak egin, entrebistak pasa, azterketa teoriokoak egin etabar. Eta bueno, erresultaduetan guztiz tuntuna ez zela esaten zien, baina "no apropiada para este puesto de trabajo".

Administrazio publiko lokalean, herri-tarrak lehentasuna edo eta interinitatean lanean dihardutenak; Administrazio publikoko maila altuagoetan berdintasuna printzipioa eta publizitatearena estaliz, "konfidantzazko" jendea nahiago; lantegi pribatueta esperientzia; bekak pertsonaia oso brillanteentzat.

Honela, ez-gaituaren konplexua jar-tzea besterik ez zioten egin gaixoari. Eta erabaki judizial finkoz hala zela esan ziotenean, benetan sinistu zuen.

Orain sikiera erozaindegian dago, eta bere buruaz gustora, bera zaintzen lanpostu bat bederen sortzen duelako.

Egia bazan edo ez bazan, sartu dadila kalabazan.

Goierriko mediokre bat

Lazkaoko ez-izenak

Denok dakigu ez-izenak, izenordekoak edo izen-goitiak duten arrakasta euskal herrietan. Asko eta asko beren ezizenez bataiatuak izan direla uste da askotan. Hainbesterako indarra dute ezizenak, hain egokiak dira askotan, non izen-abizenik ere ez duela batek, pentsa dezake norbaitek.

Izen-orde (izen-urde) bakoitzak izango du bere arrazoia: batzutan etxeak ematen dio izena etxe-koari, gurasoengandik dator bestetazutan, ateraldi batetik etorri liteke... Akaso hemen azaltzen diren batzuk oso gustora ez omen dute hartuko baina agoantatzea asko omen daukate. Ez-izenak dio iza-na.

Lazkaoko izen-orde zenbaiten zerrenda doakizu hemen irakurle. Ezinezkoa egiten zaigu esplika-zioetan sartzea. Lastima! Ea beste herrietako jendea animatzen den gure errebista horretara halakoak bidaltzea!

Itzi Murua: Maizpi, Loston, Lucien Van Castillo, Azeituna, Aldridge...; **Jesus Mari Itzi:** Baron de Andreskale, Baron de Mikelar, Principe de Viana, Principe de Baviera, Perez de Kesada Ortiz de Arozamena, Ganbo, Ganbainez; **Enrike (Kike):** Zapoa, Pilu-pilu, Samuel; **Itzi Urteaga:** Pinpin; **Ion Lasa:** Labores; **Xabier Barandiaran:** Bokanegra; **Juan Jose Etxeberria:** Tejero, Erremaiz, Txibustio...; **Agustin Etxeberria:** Estraino, Torrano, Huges; **Joseteban Urre:** Poli, Polipasto; **Joxe Arregi (Arramendikoa):** Pepo, Arramelon; **Gregorio Garmendia (Mendizabalgoa):** Erregario; **Rafael Larunbe:** Tarin, Iturrino; **Markox Barandiaran:** Guines, Futbolista; **Tomas Urre:** Tomatillo, Tomi; **Ibon Garziandia:** Garziantonaundia; **Juan Antonio Auzmendi:** Pontxito, Soponzo; **Gregorio Karrión:** Plumas; **Koldo Ibarlaburu:** Gallinero, Gallinazea; **Andoni Larrañaga:** Karamalo; **Andoni Lasa:** Kongito, Pittin, Gasparin; **Gurutz Altuna:** Kabezon; **Juan Mari Altuna:** Jerman eta Kalimero; **Joxe Julian Urteaga:** Molinos; **Itzi:** Txata, Hamairu; **Mikel Garmendia:** Sarasa, Muller; **Goio Goena:** Satorra, Goenatxo; **Xabier Barandiaran:** Ziego; **Ander Meliz:** Melizon; **Juan Manuel Luzuriaga:** Purlon, Sobrio; **Kako Urteaga:** Gaston; **Joseba Iaki Barandiaran:** Zebulon, Otxoto, Eskilatxi, e.a., e.a.; **Txanpi:** Ebreo; **Ander Barandiaran:** Pakirrin, Hiru- haundi, Maradona; **Txemari Garmendia:** Julez, Txus, Patata; **Agustin Agirre:** Baretta, Ba-

reteo, Bare-bare, Borraska; **Aitor Larrañaga:** Txerife, Esplike; **Patxi Garmendia:** Patinas; **Joxe Mari Ormazabal:** Jotaeme; **Joakin Mari Peña:** Iu; **Agirre:** Obispo; **Fernando Fuentes:** Buski; **Joxe Manuel Garmendia:** Untxundi, Manuel el zorro; **Itzi Gaztañaga:** Peinao, Alterofilo, Filba; **Mikel Albisu:** Ramirez; **Patxi Gaztañaga:** Osaba Patxi, Pakito; **Axier Oiarbide:** Pototo; **Josemi Perez:** Miel; **Zubiarrain:** Pope, Ponpel; **Joan Joxe Etxeberria:** Zaku, Torrano; **Itzi Eskisabel:** Zenizo, Pitoaundi, Ladrillo, Praka- etxola; **Joxe-mari Albisu:** Fignon; **Joseba Urretabizkaia:** As-teasu, Txino, Tijerita; **Aitor Agirrezabala:** Triku, Jerente, Gafe; **Mikel Agirrezabala:** Mediobiter, Gafito; **Migel Mari Luzuriaga:** Purlontxo, Luzie-go; **Oiarbide:** Malli, Pitilin; **Juanjo Oiarbide:** Kabezon; **Tomas Oiarbide:** Txeti, Txetito; **Misko:** MiskoJones; **Itzi Altuna:** Castillo; **Juanan Arruabarrena:** Txakurre, Txakurtxulo; **Andoni Agirre:** Bonito de Getaria, Borraskas; **Joakin Mari:** Jabali de Urbasa; **Juan Anjel Anton:** Piter, Pedro; **Anselmo:** Oreja gerrillera; **Manu:** Azere-da; **Santoio:** Gento, Pirri, Beltza; **Fael:** Ratita; **Juan Martin Urteaga:** Pani, Karajillo y farias, Txoferillo; **Fernando:** Banano, Zabalua, Zabalza; **Fermin Zunzunegi:** Ankatzabal; **Antton Izagirre:** Freki, Ileamoztuta; **Itzi Insausti:** Pello, Gigo-lo, Txurdo; **Josean Insausti:** Gargamel, Asrael, Palisto, Txotxa, Bartolo, Kuerbo, Zangano; **Jose Delfin:** Dopito; **Luis Migel Sanzol:** Pitufito; **Itzi Lasa:** Fumarro; **Juan Mari Sanzol:** Txafilis, Pei-xoto; **Felix:** Fileto; **Luismi Galparsoro:** Meloko-ton; **Jose Inazio Irastorza:** Joxpiixi; **Juan Ramon Arratibel:** Pites, Pintiño; **Santana:** Txantxan, Ali-kate; **Bittor:** Kaskazuri, Zaharra; **Lukas Insausti:** Radio Futura; **Esperantxa:** Graja; **Joxe Inazio Insausti:** Jospi; **Jabier Insausti:** Motorista Fan-tasma; **Florentino Larrañaga:** Pottiño, Sherif; **Enrike Agirre:** Gorrie, Juramentos, Sherpa; **Jose Mari Bikuña:** Tubos; **Onorio Teniente:** Mantekas; **Jabi Gonzalez:** Panes; **Fernando Fuentes:** Bijandi, Torero; **Joanjo:** Kitaniebes; **Joxe Mari Aranburu (Laboralekoa):** Patas; **Patxi Badiola:** Ximaurre; **Joxeanjel:** Txispas; **Mariano:** Moxorro; **Anjel Fuentes:** Anjelete, Graitxo; **Joxe Mari Irastorza:** Judas; **Gorka:** Zelatin, Furtivo; **Jesus Mari Etxeberria:** Isisme, Torranito, Frasko; **Etxezarreta:** Etxizero, Kasabieja; **Miel:** Patata-moxorro; **Leunda:** Biberon;

"Magallanes" and konpani



SUSKRIBITU ZAITEZ!

GAUR EDO BIHARKO
KOLABORATZAILEEI:
GURE TELEFONOA, 889612.

IRAKURRI
ETA ZABALTZAZU
GOIERRRITARRA

Itsasondoko harrobien kondaira zati bat

GOIERRITARRAren 14. zenbakian bi artikulu azaltzen ziren izenburu hauekin: "Ximona Ibarguren (89 urte): Arrubiak: ejenplu bat jartzera noa", Jon Aranoren sinadurarekin; "Arbelaren lantzea atzo eta gaur", Garbiñe San Miguel sinadurarekin.

Jon Aranok jasotakoen artean irakurri liteke: "(...)Baita majiña bat gizon il ere. Alamoduzko kondiziotan egongo ziran. Autsek, silikosisak eta". Nere erantzuna: Garai hartako lan- kondizioen berririk ez dut, nik ezagututakoak halakoak ziren. Donostiako "Jefatura de Minas" delakotik urtero etortzen ziren harrobien azterketak egitera eta ondorioak liburu batean idazten zituzten. Gure enpresa behartua zen liburu hau ematera eta "Libro de visitas" deritzaien. Langileria buruan kaskoa eramatea behartua zegoen bezala, eta nahiz enpresak denei banatu kaskoak, gehinek ez zuten jartzen (motoristekin gertatzen den antzera). Silikosi aldetik, esan behar da Itsasondoko pizarrak %20a silizea duela. Enpresak ahotan jartzeko esponjazko maskarilak banatzen zituen langileriaaren artean, baina gehienak ez zuten jartzen erosoago lan egiteagatik. Arbelarekin silikosis gaitza harrapatzeko oso arrisku txikia zegoen, joera bat zeukana bakarrik harrapatu zeiken eta horregatik egiten ziren maiz mediku- errekonozimenduak (azkenaldian, urtean bi alditan).

Jon Aranoren artikulua segituz, irakurri liteke: "Orduan berriz, etzan, ejenplu bat jartzera noa, batek erreklamatzan bazuen ere, edo kondizio txarretan zegoela (...). Aundiagoak billatuko zituzten eta leenago bezela geratuko zan gauzea". Nere erantzuna: Ez dut sinisten hori gertatuko zenik, garai hartan orain baino elkartasun gehiago zegoelako. "Ataundik, amar urte zituzten ezkeror etorriko ziran umeak lanera. (...)Eta, zenbat diru eramango zuten Atauna, berriz?". Nere erantzuna: Garai hartan 11 urterekin ziren lanean "Libro de Matricula"n azaltzen denez. Ejemplu gisa, Zaldibian jaiotako eta Itsasondon bizi den Joxe Mendizabal Irastorza 1922ko abuztuak 7an sartu zen lanean 11 urterekin Aseguru Liburuan azaltzen den bezala. Ez zait iruditzen erraza denik antzematea zeinek daukan 10 edo 11 urte. Eta baldin baziren 10 urtekoak, iruditzen zait mutikoen edo bere gurasoen fabore egingo zuela orduko nagusiak edade hortakoak hartzean, erresponsabilitatea agintarien gainean bakarrik zegoelako.

"Emen bertakorik gutxi ibili ziran aurrealdean arrubizulotan. Erriko Goi-errikoeta baserrietako

jendea ezta arrimatu ere (...) Naparra etortzen zan asko (...) Gerroz bai". Nere erantzuna: 1935 urteko liburuan 126 langiletik, itsasondotarrak ziren 38 (%30), horien artean bere jaiotz- urtea ipiniz: Jose Domingo Mujika Gabirondo (1861), Jose Iturrioz Lasa (1874), Nikolas Mujika Alzaga (1895) Franzisko Aranburu Caminaur (1884)

Teodoro eta Martin Garmendia Aizpurua (1888-1890), Franzisko Ibarguren Sempertegi (1883), Jose Manuel Mendizabal Lasa (1878), Franzisko Elizegi Lasa (1883), Adrian Garmendia Zaldibia (1893), Juan Iturrioz Aizpurua (1894), Alejandro Mendizabal Lasa (1891), Migel M Mujika Gabilondo (1858), Manuel Apaolaza Loinaz (1894), Jose Mari Agirre Irastorza (1897), Martin Leunda Garmendia (1893) eta Juan Martin Iturrioz Lasa (1876), beren senideak biziko dira, Itsasondo, Ordizia, Beasain eta Goierriko beste toki askotan. Beste herrietakoak ziren: legorretarrak 4, zaldibitarak 10, ataundarrak 10, ordiziarak 4, beasaindarrak 4, gaintzarrak 4, eta baziren ere beste herri txiki zenbaitetakoak: Errezil, Altzaga, Goiatz, Beizama, Orendain, Zegama, Abaltzisketa eta Albiztur. Gipuzkoarrak denetara 103, naparrak 7 (%6), Bizkaitik Hilario Uriona Zabaljauregi (1882) bakarrik, arabarrak 2 eta Euskaditik kanpo 13, horietatik Remigio Moreno (1906) eta Hipolito Calleja (1895). Ikusten denez, gehinak mendiko jendea edo baserritarrak. Ezin alderantzia jaso zuten J. Aranok.

"Ta alare kiebra egin zuen, (...)tik aurrerakoa: Nere erantzuna: Pizartegiak ez zuen jasan kiebra ekonomikorik, han ulertu ezina kiebra izan zen. Itsasondoko "Kantillape" aldizkarian agertu nuen bezala, nik ezin nuen bakarrik pizarreraren mar-txarekin, horregatik proposatu nuen kooperatiba egitea. Elizako Juntakoen jokabidea izan zen kooperatibari bizkarra ematea eta pizarrerari hil-kan-paiak utzi jotzen.

Orokorrean, nik ez dut uste Itsasondoko pizar-tegian beste herrietan baina gutxiago irabazi zite-



keenik, bestela ez luke zentzurik herri horietatik Itsasondora etortzea.

Garbiñe San Miguelen artikuluan irakurri liteke: "(...)Hiru errelebotan lan eginez aurreneko urteetan, (...) jornada hamar eta zortzitako jaitzi zen". Nere erantzuna: gogoratzen naiz nola orain 40 urte inguru 8 ordu lan egiten zela tailerretan eta 7 harrobian. Eta gure aita zenari entzunda dakit, orain 60 urte inguru nola hartzen zuen Donostian goizeko 6etako tren, Itsasondora 7ak aldera iristeko, langileak lotan zirelarik, 8etan sartzen baitziren. Tailerretan, lan orduak ziren 8-12etara eta, arratsalde, 2-6-etara, eta harrobian ordubate gutxiago. Aitonaren denboretako berririk ez dut. Ziur asko Garbiñeren irudimen sutsua izan liteke: "garai onenean 150 langile ezagutu ziren", liburuan 240 langile azaltzen baitira.

"Pizarrerria Mendizabal"en bezeroa naizenez, Garbiñek idatzitakoa zuzentzeri noa. Estatu mailan ez du kompetentziarik arbeldegi honek, bakar-rak direlako. Beraien merkaturik handiena izan liteke EEBB-ak, baina Euskadira (Gasteiza) sal-tzen dute produktu kopuru handiena.

Bukatzeko, eta 40 urte pizarra-gaietan eginda gero eta ikusirik gaurko langabezia alde batetik eta bestetik pizarrak Goierri (Itsasondo eta Beasain) duen tradizioa, eskatu edo aholkatuko nuke norbaitek egiteko azterketa sakon bat Goierriko pizar-rak esplotatua eta saldua izateko duen posibilitateaz. Metalgintzaz aparte beste industria motak ere esplotatu behar dira eta, nola ez, bertako lurra-ku duena, pizarra (Larramendiren ustez, etimologiaz, "pizkarria") edo pitzatzen den harria.

Jokin Sarasola Martinez



Ruta MADRID-IRUN - Km. 419
Tlfs.: (943) 88.19.58 - 88.19.62
20212 OLABERRIA
(Guipúzcoa) España

Patxi

ERRETEGIA

Tfnoa: 80 15 75

LIERNI

LEJAR

KRISTALDEGIA

Eraikin eta merkatalguneen
Kristal ezarraztea - Beirategiak - Orma-ispiluak



ERAKUSKETA: Ezkiaga Pasealekua, z/g. Tfno: 88 88 24

BILTEGIA: Beasaingo Industrialdea, Salvatore Auzoa. Tfno: 88 60 70
BEASAIN

UTOESKOL ARALAR

Urdaneta, 64. Tel. 881651. 20240.ORDIZIA (Gipuzkoa)

GENERALI Aseguroak

IÑAKI ARIN BAZTARRIKA

Oriako Pasealekua, 20 -Tfnoa: 88 87 02
20200 B E A S A I N



AUTO ESKOLA

TELEFONOAK:

Lazkao: 88 72 99


Beasain: 88 18 96

GIPUZKOA



MUJIKÁ LIBURUDENDA

Kale Nagusia, 19. Tel. 88 11 94
ORDIZIA



EGUZKI

Inprimategia

Nafarroa Etorbidea, 9

Tfnoa: 88 94 82

20200 B E A S A I N

- Zerbitzu zuzenak furgonetarekin
- Zerbitzu nazionalak
- Zerbitzu internazionalak


gaur express

mensajeros-mezulariak

BEASAIN 88 89 38
88 83 17

TAPIZ ETA GAINEZTADURA
TAILERRA

B i O K , c . b .



Zoruetako moketak, parketak, zintasola, e.a.

Ezkiaga Etorbidea, z/g.
Tfnoak: 88 80 22 - 88 79 17

BEASAIN

GARAJE "LAZKAO"



Renault ZERBITZU OFIZIALA

Salmenta eta jatorrizko errekanbioak
kotxe konponketa orokorrean

San Prudentzio Auzoa, z/g. Tfnoa: 88 24 42 LAZKAO

-- On Joxemiel Barandiaran! Akabatuko digutela hainbeste bixitarekin. Direla sariak, domiñak, direla agurrak, diosalak... Lehen aldiz batzuk eta azken aldiz beste batzuk, denak agurtu (eta argazkitan agurtu) nahi dute. Joxemielen edo gure onagatik ote dabilta? Utz dezatela pakean behingoz!

-- Aurreko aleetan akordatzea ahaztu zitzaigun (oporraldiek eragindako lapsusa, behar bada), Emeterio Sorazu Zaldibiako apaiza, antropologoa izaki eta entsaio bat argitaratu duela eta, gisatsu azaltzen zitzaigun "D.V."ko orrietan elkarriketa luze batean. Gisatsu eta jakintsu azaldu zitzaigun.

-- Beste elkarriketa luze bat, Bergaran Kilometroak-91 zirela eta, "Berrigara"-n: Martin Ibarbia beasaindarrari zor diogu neurri handi batean "Kilometroak" jaia. Berari eta beste beasaindar bati: Josu Erguini, honek ideia EEBB-etatik ekarri eta Martinek E.H.-n martxan jarri. Gogoratzten Beasaingo lehen "Kilometroak-77"? Bada horrela lortu zen denbora gutxian diru asko ateratzea Alkartasuna Lizeoa eta Euskal Herriko Ikastolen alde, orduarte ez bezala.

-- Ez gara nekatuko 90.eko harrikadak eragindako goierritar kaltetuak defendatzen.



Martin Ibarbia

tzen. Azkenean, Gipuzkoako Diputazioak laguntzatxo batzuk jarri bide ditu: kalteen %40a ordainduko omen zaio, gehien ematen zaionari ere, norberaren sarreraren arabera. Protekzio Zibilek aseguratuko gabeko edo aseguruak erantzun gabe utzitakoei ere zerbait emango omen die-edo. Hala bedi.

-- Jon Etxezarreta, Ordiziako "Etxezarreta" edo "Juantxo" erropa-dendako semea (Mirentxu Etxezarreta, Estaduan Ekonomikas karrera bukatu zuen 2. emakumea eta baserriari buruzko entsaiu bat egin zuenaren anaia), jakintsu-sonakoa da eta apaiz ere izan behar du, "kausa galdu" askoren abokatua. Eroski Erakundearen lan egin behar zuen, goi-karguak betetzen eta azkenaldian notizia-gai izan da "Hermanitas de Faucauld" (edo "de los pobres")-eko Estatuko Zuzendari Orokorra izendatu dutelako.

-- Gastesi Jauna duela gutxi erretiratu du aidanez CAFeko Zuzendaritzak eta Donostiara joan bizitzera erretiro on batekin. Bada, iturri onetik jakin ahal izan dugunez, Goierri Lanbide Eskolako Juntako dirijente eraginkor eta lider karismatikoa zen garaian CAFeko zuzendaria, Segura Irratia itxirik euki zuen "Fraga Legeak". Irratia berriro irekitzerakoan, jaun honek Fabrika Handitik atera zen tren baten kostuetan kargatu omen zituen Segurakoaren errepetidoreak kostatakoaren zati bat. Trena garestixeago salduko zioten atzerriren bati eta aurrera. Eskertuko zioten garaiko Goierriko "indarrak" keinu hori. Hola bada-ez bada, ez gara sartzen baloraziotan.

-- Goierri Lanbide Eskolara, BBB-BUP utzi eta FP egitera 100 ikasle pasa omen dira. Azken urteotako joera da, dirudienez.

Goierri L.E.-ko matrikula ere huskeria da egun. Alegia: zertarako karrera egin, gero langabezia egoteko? Sikiera lanerako prestatu eta bertako enpresek eskatzen duen lan-indarra izateko prestatu eta kito. Baina horrelako direktorizak banatuz eta profesionala primatuz ez da lortzen jende prestatuegia. Eta behar dugu jende hori ere.

-- Nahiz eta alderdi jakin batek bere jarraitzaileei kartak bidali EHNekezarien Elkartean baja emateko eskatuz, nekazari sindikatu honen Gipuzkoako Lehendakari den Alberto Aldasoro idiazabalarrak dio 100 bat baserritarrek bakarrik jarraitu dituztela kontsijna horiek eta "Administrazioak sortutako nekazal sindikatuak ez duela arrakastarik lortu".

-- "Ordizian", "Bareak", denda onak? "Ordizian" komertzio erakundeak 70 bat merkataria biltzen ditu eta "Goiherriren zerbitzuan" leudeke beren esanetan; Beasainen "Bareak" da dendariaren halamoduzko elkarte. GOIERRITARRA aldiakaria behar-beharrezko publizitatea eska eta eska ari zaizkie biei, urte pare batetik hona. Eta ez dugu merezi sobrare, periodikuei, jaietako urtekariei eta besteri eman ematen bait diete. Salagarria da, bestalde, izenburua baino ez dute euskaraz euren boletoa eta iragarkietan. Ez dauka goierritarren zerbitzuan edota bezero euskaldunik ez dute bestela.

ORDIZIAN DENDA ONAK

VIAJE CON NOSOTROS

SORTEO

FIN DE SEMANA EN PARIS (para 2 personas + 50.000 Ptas.) 21-10-91

VIAJE PARA 2 PERSONAS A ITALIA

(12 días P.C. excepto 4 almuerzos) 21-11-91

CUATRO HERMOSAS CESTAS DE NAVIDAD 21-12-91

FIN DE SEMANA EN PARIS (para 2 personas + 50.000 Ptas.) 4-1-92

BOLETO GRATUITO POR CADA 200 PTAS. DE COMPRA Caduca al mes.

N.º 0887365

VIAJES TXINDOKI

LA AGENCIA DE SUS VACACIONES
Urdaneta, 11 - Tel. 887200 - ORDIZIA



Ordizian

A ze flaxa Eguberritakoa!

Berriak labor

-- Mikel Sarriegiren liburuaren aurkezpenean Xabier Mendiguren Elizegik esana: "Mundu honetako baso handiena Amazonia den bezala, euskararena Goierri da".

-- "Euskaldunon Egunkaria" k urtebete egin du. Agoreroek iragartzen zioten bezain laister ez da gastatu eta ez dirudi berehalaxe desagertuko denik. Dirulaguntzak ukatu diotenei errespetuz tratatuz. Egunero-egunero arituz, ez digu hutsik egiten eta jende askoren egunkari bakarra da. Arrakastatsu ospatu da Egunkariaren Eguna eta egunetik egunera ari da lortzen itzal handiagoa. Urte askotarako!

-- Beasaingo Herri Batasunak argitaratzen duen "Gogor" aldizkariaren ale berrian orain gutxi ospatu den "Udazken Kulturala" kritikatu da: herritarren partaidetza eskasa herriaz kanpo kontratatutako ikuskizunen aurrean, e.a. "Pena merezi al du horretan bost milioi gastatzeak?", galdetzen dute. Beste berri bat: Beasaingo Udalak 50 milioi gastatu omen ditu futbol zelaiko tribuna berria egiten.

-- Legorretako Gazte Kontseiluak badu, azkenean, aldizkaria. "Pikun berriak" deritza (orain 20 urte halako izena zuen beste aldizkari bat bindikatuz-edo) eta hizkuntza nagusi legeaz euskara darabilte. Gazte-informazioa izango du ardatz, besteak beste.

-- Ataungo Aia auzoan, Goierriko hainbat herrietan bezalaxe, baserrietako maizterrak eginahalak egiten ari dira baserri horietaz jabetzeko. "Markesa"renak zirenak herriarenak laister.

Zaharrak berri



Garai modutsu hauetan askotan eman digu Barandiaranek urtebetetze bizkor eta zoriontsua ospatzeko aukera. Hala izan bedi luzaroan. Goierriek ezezik Euskal Herriak gizon gutxi eman ditu bere neurrikoak eta, berriz ere, ez da errez izango tamaina hartzea, noski. Batetik, mundualdi bakarrean burutu duen lan izugarria delako eta bestetik bizimodu osoan erakutsi duen gizatasunagatik. Bere etxera jo duen edozeinek, bazterretan den ikastola, euskaltegi eta inondik sortu diren talde denek bada-kite zertarainoko zabaltasunez eskeini izan duen beti guztian bere denbora eta nola ez duen sekula eskatimuan jokatu inorekin, haundi zein txiki, errege nahiz eskale, gure artean zilarretan neurtzen den denbora preziatu horrekin. GOIERRITARRAK

Barandiaran, urte askoan txapela buruan!

zorionik beroena eskeini nahi dio irakurle eta euskaldun guztien izenean eta bereziki aitapontekotzat nahi zaitugun haur besoe-tako guztionean.

Barandiaranek 1917an Jose M. Auzmendi ataundarrari jasotako ipuina aldatu nahi dugu berriz "Zaharrak berri"ren baratzearan. Bai betiko Aralarren ezagupena hobeto sustraitzeko --toki askotan salatuak izan diren pistak atzera belarrak estaliko dituelakoan-- eta baita Josemielen omenez ere.

Saltarri

Pelotari'atzuk Murumendiñ pelotan ementzeiltzen. Ta jentill bat jün emen zitzain eta galdetu ementzin:

--Ze eiti zuia emen?

--Pelotan jokaut, eantzun ementzioën.

--Arri au zetäko zuia?

--Sakârritâko.

--Beaure ez dek txarra peloten erän botatzeko.

T'artu eskütan Sakârrie eta bealdiko errün Alar aldea bota, ementzön. T'arri oi alako urriñen aidez dijôla, bi puska eñ, da bat Gaztelu'ko aizpea eta bestea Alotzâ eroi ementzien. Alotzako puskea erdiz-er-

di bitxur batën an dao, ez arri txantxetakoarê. Ango artzaiek Saltârrie esaten dioia.

Jentillen akabera

Jentillek Leizaiko kobâten bizi ziela, sekulako izar eder bat odaietan agertu ementzan. Alako izarra ikusi zoenën, jentill orik erabat ikâtuta, mundün ze gertau bear ote zön ezin asmauik ementzeiltzen.

Alakoatën, koba barrün erdi itxututa zeön jentil zâr bat ataka aurea atâ, ta zâldu endaiëkiñ betazalak, ta odaietâ beida jarri ementzoe ark izar ari zertzan antz emango ziola ta.

Baita ikusi orduko deadar eñ ementzön, ze: "A në umêk! Kixmie jayo dek, galdük gaittuk oaintxe. Bota nazazûya ni emendi gain bêra". Jentillek Jesukristori Kixmie deitze ementzioën. Kixmik berriz tximue esan nai emendo.

Beak esan bezela, mallôk bêra amailla bota ementzoe, t'ala jentill zârta ill ementzan. Geo, kristiandadea mundün zältzen asi zanën, jentil danak sakabanau ta bêla galdu ementzien.

Maite Erauskin



IRIZAR ANAIK

GALLINA BLANCA PURINaren banatzaileak

Almacén Central-Biltegia
Hiribarren
Teléfono: 88 75 00
20210 LAZKAO

Denda-Comercio
Fueros, 1
Teléfono: 88 12 09
20240 ORDIZIA



BEASAIN

UDAL EUSKALTEGIA



LOINAZKO S. MARTIN PLAZA
KULTUR ETXEA, 1.a
Tel. 889094

Euskalduntze, Alfabetatze
eta E.G.A. ikastaroa
2, 3 eta 5 ordutakoa.

Matrikulatzeko epea:
Urtarrilaren 31ra arte.

Zer nahi hura:

PINTXOTAN: denetik

OGITARTEKOAK

BAZKARI eta

AFARIAK



Kawasaki YAMAHA

SUZUKI HONDA

ZUREMOTO, C.B.

Poligono Hiribarren, Atze 1
20210 LAZKAO (Gipuzkoa)

Teléf. (943) 88 39 03

LOINAZ Taberna — Jatetxea

BAZKARI ETA AFARIAK

K/ Nagusia, 27 — Tlf. 88 20 07 — BEASAIN



Zure Argazki

Urdaneta 18 • Tel. 889325 • 20240 ORDIZIA

TOKI-ALAI JATETXEA

Bataio-jaunartze bazkariak, afariak,...

Tfnoa: 88 89 53 ARAMA



Alaska

Edergintza eta Usaindegia

Domingo Unanue Plaza, 2
Tl. 88 24 10

20240 ORDIZIA
(Gipuzkoa)


**Kirol jantzieta
espezialistak**



Domingo Unanue Enparantza 5

Telf: 88 85 18

20240 ORDIZIA (Gipuzkoa)



JATETXEA

DONOSTIA

T 885255

ALTZAGA

11550000 Ordizia

GASTEIZ

* **Karta Zerbitzua**

* **Lan menuak**

**RUBIORENA
JATETXEA**

Zaldizurreta, 7 Telf.: 88 57 60

20200 BEASAIN



SEGURO TALDEA
ZURICH-VITA-HISPANIA

GURUTZ BARANDIARAN IRASTORZA

ESTEBAN LASA, 7-1º Tfnoa: 88 88 92

20200 Beasain (Gipuzkoa) Faxa: 88 88 92

ZORTZI ARTZAI GOIERRIARREK OSATU DUTE

“Ordizia Gaztandegi Koop.”

Goierriko artzai talde baten
orain bi urteko inizatibak

“Goimen” Goierriko

Mendi-Nekazaritza

Elkartearen, ELE (E.H.- ko
Latxadun Elkartea) eta Artzai
Gazta Elkartearen babesa izan
zuen, besteak beste. Ordiziako
Euskal Jaietan inauguratu zen
Gaztandegia eta honez gero
irekirik dago denda.
Markatutako helburuak
betetzen doaz, beraz.



Bailadako zenbait artzairi gazta den-
bora luzez, hilabete eta hilabeteetan,
eta kondizio zehatz eta egoki batzue-
tan (tenperaturak-eta) gordetzeko
sortzen zitzaizkien buruhausteak
gainditzearen sortu zen idea, txabolak
nahikoa ez zituztela eta biltegi baten bila
hasitakoan. Urri dira beren kamarak di-
tuzten artzaiak, garestiak hozgailuok
bestalde eta, azken aldian Goierri osoan
ere baserritar jendea baserriez jabetzen
aritu arren, maizter asko dago oraindik.

Hasiera batean hiru biltegi kontenpla-
tzen ziren: Ordizia, Segura-Zegama eta
Urretxu-Zumarraga, baina baldintza
onenak Ordizian aurkitu sobrare (Udalak
errenta sinbolikoa ezarri, harik eta mar-
txan jarri arte) eta bertako
“Txakurtxulo”n finkatu dira kooperatiba
osatzen duten, Joxe Manuel Otegi, Ge-
rardo Garmendia, Jose Antonio Imaz,
Inazio Irastorza, Felipe Etxeberria, Jabier
Telleria, Anjel Mendiguren eta Josu
Amundarain.

Kooperatiba honen sorreraz Goimen
Erakundeko Xabi Akizuk ematen dizkigu
datuak. Lokalak kondizioetan jartzeak 22
milioitik gora egin du. Jaurilaritzaren eta
Diputazioari esker obradorea eta 30.000
kg.ko kapazidadeko umotze-kamara.

Joxe Migel Barandiaran Plazatik sarrera
daukan produktua komertzializazio-
rako denda irekirik dago, berriz.

Kooperatibaren erdua ez da gauetik
goizera erabakitako zerbait, “bakoitzaren
produktzioa gordetzetik, poliki-poliki
posturak aldatuz joan eta gaztandegi bat
egitea lortu dugu. Horrek esan nahi du
artzaiak esnea Ordiziara jeitsi eta bertan
egiten dela gazta, guztien artean saltzeko
ondoren”, argitzen du Xabik.

Artisau-gazta oraindiko

Goimen-eko jendea ohartzen da ar-
tzantza sektorean egitasmo honek iraul-
tatzeko bat eragin dezakeela. Artzaien,
Instituzioen (Jaurilaritza, Ordiziako
Udala eta Diputazioa) eta zenbait elkar-
teen (EHNE tartean) ahaleginez sortu da
kooperatiba txiki hau eta bertan kide di-
ren artzaien artaldean esne gordin eta
garbiaz, lehen bezala gatzagia erabiliaz
egiten da ardi-gazta.

“Idiazabal Jatorri Izena” Kontseilu
Erregulatzaileko lehendakari den Antxon
Perez Callejaren ustez, berriz, idea bi-
deirekitzailea dugu hau Euskadin. Es-
kualde bakoitzak horrelako bat beharko

omen luke, “gero eta beharrezkoagoa de-
lako homogeneitate bat, ezin baita pro-
duktu bat eutsi (“Idiazabal”)a 20-25 mota
gazta ezberdin eskainiz”.

Artzai-kooperatibistak, gazteak
gehienak, ez dute uste hainbestearinokoa
izango denik industrialteza, mekanikoki
egiten denez gazta gaurregun, bada, pro-
zesuaren mekanizazioa da gehiago. Sani-
tate arau guztiak errespetatuz, garantzia
guztiak gordetzen ditu horrela gure gazta
ospetsuak. Liberatu bat dute gaztagin-
tzan, sozio egingo luketeena. 8 lagun dira
oraingoz, erdi-artisautzan. Baten batek
etxean egin eta gordeko ditu bere gaztaiak
eta gainontzekoek Kooperatiban, hori
bai, artzaien teknika berberekin baliatuz.

Artzai Gazta Elkartearen aholkularitza
ederra jaso dute eta, ez da sekreturik,
gazta ona ateratzeko esnearen kalitatea da
aurrenekoa. Ardiesnearen tenperatura
egokia bilatzen da, hezetasun zehatz bat,
bakteriak ez dezan alferrik galdu “uzta”.
Esnea 1.500 litroko upel galanta batean
botatzen da, gatzagia erantsi eta bere ho-
rretan utzi, irabiatu (eragin), prentsatu,
umatze kamaran sartu eta pare bat hila-
bete egiten ditu han. Ez dituzte kezkatzen
gaztaok.

Gaztandegia pulamentuz martxan jarri zenetik iazko Euskal Jaiak bitarte 6.000 kilo produzitu zituzten. Kontsumitzaile aldetik harrera ona izan du eta dagoeneko barra-barra saldu izan dute, kalitate oneko izena duen honetatik. 91.erako aurrez ikusitakoa 12.000 kg. produzitzea zen. 4-5 urteetan bikoiztu egingo bide da kopuru hau.

Errekapitulatuz, tradiziozko erak jarraituz eginiko gazta, artzai goierriarrek egina, bertako larreetan ibilitako ardien esnea, "Idiazabal" itxuraz bereiztuxea, Ordiziako etiketarekin.

Bertako artzaiak eta gaztak denbora moderno hauetara egokitzeko ahalegin bateratu bat egin da eta, hemengook hemengo produktuak kontsumitzen ditugun artean, ez al da galduko antzinatik datorren geure kultura zati hau. Kontsumitzaileak du hitza.

Mikel Aramendi



**ORDIZIA
GAZTANDEGI
K O O P .**

Jose Miguel Barandiaran Enparantza

Telefonoa (943) 88 94 20

20240 ORDIZIA (Gipuzkoa)



BORONDATE HUTSAREKIN EZ DA BASTA: LAGUNTZA HANDIA BEHAR DA DROGA-MENPEKOTASUNA UZTEKO

Jon Etxeberria: "Atera daiteke bat drogaren kakazaharretik"

26 urte ditu Beasainen bizi den Jon Etxeberria ordiziarrek.

"Drogaren mundua" ezagutu, larrutik, eta berau uztea aukeratu, "sendatu" eta bergizarteratzeko ahaleginik egin du goierriar hainbatek azken urteotan. Jonen kasua dakargu orriotara drogazale-ohi errepresentatiboa delakoan. Bi urte daramatza "istorio"tik kanpo eta asko dauka esateko gaiaz.

Garai batean "prentsa ona" zuen drogak, ia mitifikaturik zegoen gazte jendearen artean. Konturatzeko, jende pilo bat harrapatu du drogaren (ez ahaztu, droga mota asko dago) alderdi txarrak. "Drogadiktoak...!" hitz despektiboaren taula-rasoarekin neurtu eta erremediorik ez dutela uste ustela dutenei egurra: urte pare bat inguru egin ditu, adibidez, Jonen "Gizakia Helburu"n ("Proyecto Hom-bre")n eta atera bezin pronto aurkitu du lana inguruotan. Orain beste "engantxe" osasungarriago batek joa dabil: eskalada eta mendia orohar. Aralarren egon ginen bera eta bere neskalagunarekin.

GOIERRITARRA.-- Desintosikatzebidean jarri nahi duenari, zer esango zenioke?

JON ETXEBERRIA.-- Niretzako inportantea da kakatzar horretatik atera litekeela esatea. Orain 3-4 urte ez nuen usteke. Ateratzen zara edo akabo; gaur egun, nahi baduzu atera zaitezke. Motibaturik egon behar duzu, laguntza asko behar da (familia, lagunak...), baina atera liteke. Orain bada aukera, beharra ere handiagoa-eta, jende espezialdua eta eskarmentatua bada drogomenpekotasun

gaietan, gehiegi ere ez baino. Erakunde publikoetan, tori sustitutiboak, metadona, partxeak baino ez dira jartzen. Batek galdetu behar duena da: "Zergatik?", lan pertsonala egin, bilatu zer dagoen konportamendu pertsonalaren atzean, ez da behar sustantziarik.

Ingurukoek presionatu zuten Jon sendabidean jartzeko erabakia hartzera. "Erreta nenbilen, insatisfetxo. Nire kasuan, ez nindoan lasai kaletik. Bi paper betetzen nituen: bata, jonkia eta bestea tipo arrunt batena, lana, neska, etxea... zituenarena. Banekien gezurretan nenbilela eta nire bizitzaz teatro bat egiten ari nintzela. Ez nindoan "jonki deklaratu" bezala, ez eta kopeta-goian."

Eta ez du uste denbora galdu duenik bi urteotan, bizitza berri bat irabazi baizik, ez drogak uzteagatik bakarrik, pertsonalki "hazi" eta bere burua hobeto ezagutzen duelako.

G-- Zergatik "txutatzen" zinen?



J.E.-- Jonki bakoitza motibu ezberdinegatik txuta ohi da: beldurrak, satisfazio-eza, kobardiak, bakardadea, autoestima gutxitua... Heroina-zirkuluetan "anestesiaturik" zabiltza, "jarririk" zaudenean ez duzu sentitzen dituzun arazoak. Gero okerrago zaude, arazoa larritu egin da eta "engantxaturik" zaude fisikoki gainera.

Prolema neu nintzen (droga biguinek ez dauka zertan eramanik bat gogorretara), neurriko oinetakoeekin aurkitu nintzen "zaldia" probatzean. Sartu, bapez sentitu, bapo, justu behar nuena, ordurartekoarekin aurkitzen ez nuena. Jende

gehienak behar ez badu ere, nik gehiago behar nuen. Arazo larriak sortu zitzaizkidan, fisikoak, erlaziozkoak, ekonomikoak, gaizki nengibilen, teoriar desia litekeen guztia nuenan.

Drogamunduan dignidade gutxi, baloreak galtzen dira, gizartearen baloreak dira drogazalearen anti-balioak: *"zeure buruak ajola ez badizu, inoren ajola ez duzula merezi uste baduzu, zer ajolako zaizu besteena? Dena gaizki ikusten duzu, distortsionatua, mesfidantzaz, ez duzu uste jene ona badenik, gezurra dena!"*.

Gaurko ikuspegitik, mundu gordin eta sordido hartatik ateratzen lagundu dioten ikastolako lagunak, koadrila berrikoak ikusita, ohartu da hori ez zela horrela. Ezin- sinistuzko elkartasuna izan du. *"Balore berri eta positiboagoak jabetu nahi ezkerro, mogi zaitez mendizale edo edozeren zalerekin, ez dizute huts egingo. Jakina, Ordiziako asteburueta sator-zuloetan jende sana aurkitzea zailagoa izango duzu, beharbada. Askotan, gauza aluzinagarriak ere badira bizitza xaloan, baina, keizteko motiboak eukitzeagatik, ez ditugu ikusten"*, dio Jonen neskalagunak.

G.-- Nola eraman duzu bi urteotako "tratamendua"?


J.E.-- Sartu nintzenean "P.H."-en, lehenagoko lepotik burua segitzen izango nuelakoan nengoen sendatu arren, porroak erre, e.a. Alkoholak eta guztiak utzi ditut. Momentuz ez dut kejarik, baina askotan egon naiz tratamendua uztekoan. Baina ez, ondo pentsaturik, nire burua ezagutu dudana bezala ezagututa, pertsona izateko gogoa bizkortu zait. Bizitzeak merezi duela, alegia.

Borondate onarekin bakarrik ez dago zer eginik eta kaka asko denez atera behar dena, bada, taldeko terapia lana beharrezkoa da. Familia eta lagunek "negatiboak" izateari utzi behar diote, ze milaka kasu daude: demagun heroinazalea dela seme bat eta sendatu nahi duela. Baina anai-arrebak edo gurasoak kokoteraino jartzen dira coca, anfeta, speed edo alkoholarekin. Arazoak dituen ez da heroinomanoa soilik eta honi esijitzen zaiona eskatu behar zaie gainontzekoei. Arauak denak bete beharko lituzkete, bestela etxetik kanpora, ez baitute laguntzen.

G.-- "Monoa", barau-sindromea, latza bada, ez da samurragoa izango norberaren "kakak" ateratzeko terapia, ezta?

J.E.-- Beldurrak, konfliktoak, e.a. hazi egiten dira droga-munduan sartuz gero, ia ez zara atrebitzen ezer esatera. Terapia, nahiz eta jonki edo drogazale ez izan, mundu guztiari letorkikoke primeran. Nik besotik xiringa sartuz tapatu nituen istorio pilo bat. Ez nuen beste kapaziderik. Hor dago "pertsona normal" baten eta jonkie baten arteko diferentzia. Te-

"Besotik xiringa sartuz tapatu nituen nik istorio pilo bat"



rapien, bakoitzaren arazoaren ardatzera jotzen da, ia haurtzaroraino. Guraso, lagun eta senideekiko konfliktoak ateratzen dira talde lanean: istorio fuertekak, jendeak negar, oihu eta guzti egiten du. Gaur batek eta bihar besteak. Oso gogorra da.

G.-- Garbi dago: droga asko dago, baina fama txarrenekoa heroina. Heroinomanoa mugaz haratago dago, indeseable bat da, dena atxakutzen zaio, ia gizakia ez balitz bezala.

J.E.-- Jende helduak ez du distintziorik egiten. Gazteak gehixeago. Gizarte-montaje bat da hau. Gaur-gaur, hemen drogarik latzena alkohola da, heriotz gehien eragiten dituen. Eta jendeak ez daki hori. Nola droga biguin-legalak ez

diren hain aparatosoak... Jonkiak berriz, uff!, ikusten da heroinak nola txikitzen duen gizakia fisikoki, denbora gutxian akatua dago jonkia. Zer gertatzen da? Ni hasi nintzenean hortan, denbora gutxi zerraman hemen heroinak. Orain hasi gara ondorioak nozitzen eta harripeatatik ere ateratzen dira jonkiak. **Ojala ez banengo zuzen, baina itxaron ezazue, laister ze prolemak izango diren coca, speed, e.a.- ekin!** Orain heroinarekin baino gehiago. Zergatik? Askoz jende gehiago delako coca eta speed hartzen ari dena heroinaren aldean. Coca-ara-zoengatik ere hasia dago jendea desengantxe programak egiten. Hauek uztea sikologikoki okerragoa da, speed-a oso txarra da, urte pare batera esango didazue. Cocak jendea pitzaturik utzi dezake medikuek diotenez, nahiz eta gisatsuagoa dirudien heroina antisozialagoaren aldean. Gehiago desgastatzen du ordea.

G.-- Droga-prebentzioan zerbait egiten ote da?

J.E.-- Lehen baino askoz informazio gehiago dago, hasteko. Baina komunikazio falta handia ere bada. Umeei balore positiboak itsatsi behar zaizkie, preziatu ditzatela gauza txikiak. Denbora libre ondo probetxatzea bezain inportantea da senidearteko harremana. Oinarrizkoa den horrek egiten du huts gizarte honetan. Telebista, kontsumoa eta pertsonaren desbalorizazioa oso arriskutsuak dira.

G.-- Suertea izan duk, ez da hala, Jon?

J.E.-- Loteria. Bizitza berri bat, lana, apoiatzen nauten familia, lagun, lankideak. Batzutan galdetzen didate lagunak: Zergatik sartzen huen zerrikeria hori? Eta, hain konplexua izanik, erantzun-ezinik gelditzen natzaie. Zirkunstantzia onak, pertsonalitate ongi definituak, oso inportantea den autoestimak salba zaitza-ke gaitzetik. Pertsona ez da gauza koardatu bat. Alda daiteke.

Aldatzeko, benetan aldatzeko, bere buruari aukera bat ematea pentsatu eta egin zuen etxeberritarrak. Ez zuen ezer galtzekorik, eta irabazteko, berriz, dena. Berak ere izango omen zituen aukerak mundu horretan ez erortzeko, baina egun gehiago daudelakoan dago.

Jon Arano

Proiektua

(Gazte) Jende asko da erori eta altxa dabilena, bai eta non erori ez dutenean onurazko instituzio horretara joaten dena. Drogak harrraturik dagoenak onena du hori, dudik gabe. Non prolema, han programa. "Gizakia Helburu" desengantxatzeko programaren gaia serioa da, jendearekin, eta ez gauzeekin, egiten bait da lan.

Programa ez da oinarritzen mediku/paziente errolen arteko harremanetan. "Prolema zeu zara, ez drogak" esaten diote hara ailegatu berriari. "Prolema ez da gizartea, familia, hezkuntza. Noski, eragingarriak dira, baina zeure erabakiz zara drogazalea. Noski, errazagoa da besteei errua leporatzea. Motibazio pertsonala behar duzu, bestela programa guztia bete arren ez dizu ezertarako balioko. Muturreraino, arazoa konpondu arte, dena atera eta dena eman arte joan behar duzu", esan zigun drogazale-ohiak.

Estatuko lurralde askotako kapital askotan du etxerik "Proyecto Hombre" delakoak EEBB-etatik ekarri zuten geroztik idea. Bi komunitate daude Gipuzkoan, Hernani eta Lasao. Harrera-etxea Donostiako Ulian eta Erreintseztzia Erreterian. Zumarraga aldetik jende asko doa Proiektura, Goierriitik gutxiago, baina geroz eta gehiago.

Proiektuaren Programak hiru fase ditu. Lehena, "Harrera".

Aurrena, ontzat hartu behar da laguntza

behar duzula, ezagutarazi drogazalea, zarena zarela, Alkoholiko Anonimoetan bezala. Jende bat duzu laguntzeko prestaturik. Aldatzeko gogoia indartzen doa. "Monoa", etxean ezpada, han pasako duzu. Giroa sortzen da norberak bere buruhausteei aurre egiteko. 10-12 hilabete irauten du (Prolema ere badira, lekuri ez dagoelako komunitate hoietan).

"Komunitatea", "bigarren"

10 bat hilabete. Lan pertsonala, talde-terapia iraunkorra: norberari gustatzen ez zaiona azaleratu behar da, ez dago sendatzerik bestela. Latza. Etxeko lan ugari izaten dute baita ere, komunitateetan 70-90 lagun bizi baitira.

Hirugarrenik, "Bergizarteratzea".

Hiru aroak izango dira inportanteak, baina azkena da delikatuena. Komunitatean ikasitakoa praktikan jartzea bait da. Bizitza normala egitera bueltatzea da, drogarik gabe. Kalera irten, apoio handia behar da, lagun berriak egin, eta jeneralean sorpresa atseginak izaten ditu jendeak. Azkenik, estable samar daudenean, lana bilatzen hasten dira eta denbora libre a zer edo zerkin okupatzea garrantzitsutzat jotzen da. Proiektu hau, diotenez, "hiru hankako mahai-antzekoa da: bata zeu, bestea familia-lagunak eta hirugarren programa. Oso elkar harturik behar dute egon, batek huts egin ezker dena doa hankaz gora".

Dohainekoa da zerbitzua, borondatezkoa, loturarik gabekoa, honestoa da, kontuak garbi daramatzana, bertako drogazale-ohiak lan egiten dute berriekin... en fin, ia

dena ona. Halere, gure lagunak ez du "Gizakia Helburu" mitifikatu nahi, bere "erruak" bai baititu, jendeak bazterra jo bait du hortik pasata ere.

Okerragorik ere ikusten da, ordea: deskoordinazioa ikaragarria da drogazalea laguntzeko orduan. Milioiak gastatzen dira diru-publikotik eta ondorioz ez. "Patriarca" eta "Remar" hots txarrak jota dabiliz...

Bitxikeria mingarri bezala, aipatu Proiektuan dabilzan portzentai altu batek HIES (SIDA) duela: fisikoki erreta daude asko eta asko, "kalean zurratuak" dira, eta beharrezkoa dute zerbaitean lanean aritzea (Kalean ere, ez dakiela duenik dabilenik asko omen da). Han, jende dexente hiltzen da aidanez, baina duintasuna galdu gabe hil ere, burrukan eta dezente-moduan. Badi-rudi "G.H." Jonek dio Proiektutik pasatako jendeari derrotismorako gogoak aspaldi joan zitzaizkiola.

"Filosofia" bat badute Proiektukoek: "Etxe hau dugu gure bizilekua./ Eta hemen gaude./ ez dugulako inolako gorde-lekurik/geure buruagandik ihes egiteko. (...), hitze-kin hasten dena. Poesia puroa.

Etxeak balioa izan dezan saiatu dira eta saiatzen dira eta ez da gutxi. Gizakia Helburu Proiektua, bai, eskerrikasko, goierri-tarron partetik.

M. A.

FOTOKONPOSAKETA

ANtza

Lasarte-Oriako Industrialdea, 1-2 Pabiloiak
Tfnok: (943) 37 15 45 Faxa: (943) 36 54 93
37 07 38

INPRIMATEGIA

GRAFIKAGINTZAN AURRERA GOAZ

Ataungo "otsoak" 5, Itsasondoko "ijitoak" 4

Ataungo futbol zelaia marko inkomparablean "match" espektakularra ikusi ahal izan zuen bertaratu zen orok abenduak 7an, arratsalde partean. Partidu bikaina jokatu zuten denek ere. Goierriko Herrien arteko harremanak sendotzeko balio izango ahal zuen. Hona hemen alineazioak. Afari baten inguruan (harritzekoa!) halako pintajearekin geratu ziren immortalizaturik.



ITSASONDOKO IJITOK

(Zutik, ezkerretik eskubitara): Antxon, Aitor Abadia, Jose Mari Koeman, Martin Gonzalez, Roth Gullit.

(Etzanda, ezk./esk.): "Dani", Jose Luis Kempes, Jon Aldridge, Jokin Uria, Imanol Arias, Mikel Corvalan, Joan Antonio Menteak, Txantxa Salinas.

(Mahai-azpian): Anjel Higueta eta Aitor Urban.

ATAUNGO OTSOAK

(Zutik, ezkerretik eskubitara): Ana Benhaker (entrenatzailea), Jose Martin Conejo, Jose Anjel Futre, Mikel Laudrup, Romel Arin, Aitor de la Fuente eta Iñigo Larraizar.

(Eserita, ezk./esk.): Koldo Bustingorri, Pello Lacabeg, Aitor Carrete, Joseba Agirre eta Jose Antonio Maceda.

ORDIZIAKO BARRENA HERRI EUSKALTEGIA



- ✦ Ikastaroa martxan Otsailetik hasita
- ✦ Alfabetazitezte

Tfoa: 88 12 80 — ORDIZIA



Arg: GEMA M. ARRUGAETA

Garbiñe Balerdi

ordiziar akordeoilaria Parisen

Munduko Soinujole Txapelduna" dela Mesaten diotenean, parregura sartzen omen zaio Garbiñe Balerdiri, "hori esatea erridikulua delako", esan zionez Alazne Iturriotz herrikideari, udan "Egunkaria"rako eginiko elkarrizketa batean.

Urrezko Domina lortu zuen Troisingen izandako Munduko Lehiaketan eta baita aurreko urtean Kansas City-n izandako Lehiaketan ere, "baina horrek ez du esan nahi ni munduko soinurolerik onena naizenik. Musikan ez dira gauzak honela neurtzen", azpimarratu zuen. Txapelketak, ordea, ez dira bere helburua. "Lehiaketetara noanean nere helburua ondo jotzea eta nire estiloa aberastea izaten da, soilik"

Zazpi urte zituela hartu zuen lehenengoz eskuetan soina. "Nire gurasoei asko gustatzen zitzaion soina, eta baita niri ere, hor ibiltzen ginelako erromerietan, Larraitzen eta, soina entzuten". Pariseko Udal Musika Kontserbatorioan irakasle laguntzailea da Balerdi, irakasle titularrak falta direnean ordezkaketak egiten dituen. Irakaskuntzan murgildu da baina soinu ikasketak ez ditu baztertu harelere. Max Bonney kontzertista ospetsuaren pausuen atzetik joan zen Garbiñe Ordiziatik Parisera. "Behin Max irakasleak kontzertu bat eman zuen Donostian. Aldi hartan asko inpresionatu ninduen, ez bait nuen sekula akordeoia horrela jotzen ikusi".

Ikasi duenarekin gustora dagoela dio soinurolerak eta Frantzia pozik bizi da, gauza batez ohartua, hori bai: Euskal Herrian ez bezala, irakasle oso onak daudela Frantzia, baina, aldiz, ez dago soinuarekiko gurean besteko zaletasunik. Euskal Herrian zer bait ona egiteko aukera egon badago.



Arg: CARLOS VILLAGRAN

Jesus Etxeberria

txatarrero ataundar-lazkaotarra

Bildutako guztia museo berean ikusteko Ametsa dauka. Ehun eta lau bilduma diferente osatu eta metatuak ditu 78 urteko ataundar lazkaotartuak. Erotzat hartu zuten, horiek ziren titular nagusiak, Joxan Oiz kazetariak "Egunkaria"rako iazko udan jasotzen zuenez.

Gerra zibilean familia arruinatua, txatar bila hasi nintzen". Diru premia, alegia. Izan ere, aitortu ere aitortzen baitu, "txikitatik gustatzen zitzaidala gauzak bildu eta pilatzea. Horixe nuen afizioa, han, hemen eta bazter guztietatik gauzak bil-tzea".

Ez zuen aldapa samurrik izan etxeberriarrak, "traste bilaketan" hasi zenean. "Ama zenak deitu zidan eta negarrez, "motell, or arrastaka txatar billa jardunda, erri guztia erotuta ote agoen ari dek esaka nere umeagatik; mesedez, uztak lanbide ori", esan zidan behin", kontatzen du Jesusk. Ezkonduta zegoela eta bere bizitzarekin nahi zuena egin zezakeela erantzun omen zuen orduan. Erotzat joa izan arren, ez dio, hala ere, jendearteko iritziari kasurik egin, "mesprezu handia egin zait neri, badakit, baina ezin da jendearen esandakoei begira ibili".

Bere bizitzan zehar metaturiko "traste" guztiek 104 bilduma ezberdinetan daude banatuta. Etxeberriak erreparorik gabe egiten du horren traste ez diren bilduma hauen inbentario- zerrenda: "antigoaleko 22 kotxe, 600-700 kandelero, 600 bat euskal kandela, motoak, bizikletak, ehundaka errubera, bozina, errubera puztutzeko bonbak, eskuko farolak, ferrobriarioenak, baserriko tresna guztiak, elizako santuen imajinak" kutzak, baserriko erloju horietako 80...

Bildutako guztiak hemengoak direla nabarmentzen du, "hemen erabilitakoak, Euskal Herriko txatartegi guztiak korri-

tuz gero jasotakoak". Ez daude esposizio moduan, "bastante poliki jarrita, baina hor denak pilotan ez da asko agradezitzen. Ez du ikusiko, akaso, baina bere ametsa da "nik nere bizitzan bildutako guztiak museo batean denak batera ikus-tea".

Jasotako guztiak "hemengo usarioen testigu dira, eta hori jendeak ezagutu beharko luke". Baina denak batera. Horregatik, eskaintza asko eta tentagarriak izan baditu ere, ez dauzka banaka saltzeko, "ze hortik banaka saltzen hasten bazara, akabo!".



Askapenako partaidea

Mila Izeta

idiazabaldar internazionalista jatorra

Internazionalisten eguna zela eta iazko Iurrian Iruñean, bertako zein Euskal Herriaz kanpoko ordezkariak bilduko zituen jaialdia Askapena erankundeak antolatu zuen. Erakunde horretako kide den Mila Izeta idiazabaldar gasteizeratuarekin aritu zen hizketan "Egunkaria". Izeta nazioarteko elkartasunaz nahiz azken urteotan gertatzen ari diren aldaketen eraginez mintzo da.

"Munduko gertakizunak eraginik badute, batez ere Europaz ari bagara. Baina nire ustez, berez, elkartasun lana ez da ezertxo ere aldatu. Alegia, gertatu denak erakusten digu gero eta lan gehiago egin behar dugula, guk lehen planteatzen genituen borrokek bere horretan jarraitzen dutelako".

Bere ustez, indartzen ari da E.H.-ko mugimendu internazionalista, nahiz eta jende askok garrantzia handirik ez eman. Askapen izan duen esperientzia da hori, "geroz eta jende gehiago hurbiltzen zaigula, Irlanda, El Salvador edo beste kasuen interesarekin". Aditu agertu zitzaigun Mila nazioarteko zenbait arazoez hitz egiterakoan, eta zioenez, nahiz eta mundu korapilatsuagoa dugun gaur egun, euskaldunok ez dugu erreferentziarik galdurik.

Adin bakoitzak bere jostailuak (I)

Irakasle eta psikologo jendea bat dator baieztapen honetan: *jostailuak, ongi aukeratutakoak eta haurrari egokitu-takoak izanez gero, arras lagungarriak dira haurraren hezierarako*. Baina, esaldi horrekiko hezitzaileon adostasuna gorabehera, "noiz" esan dezakegu jostailu bat "egokia" dela adin jakin bateko haurrarentzat? "Noiz" horri hitzetik hortzera erantzun baino lehen, eta tajuzko erantzuna eman ahal izateko, adin bakoitzaren ezaugarri eta beharrak nahitaez ezagutzea komeni zaigulakoan nago. Gainera, jostailuak haurrentzako aproposak izango badira, zenbat eta haur hori adin txikiagokoa izan, orduan eta kasu gehiago egin beharko diegu adinari dagozkion ezaugarriak. Horrexeagatik 3 urte bitarteko haurrentzako jostailuak hartuko ditut aintzakotzat bereziki, eta hori bi arrazoi hauengatik: batetik, gurasoak noraezean ibili ohi direlako adin horretako seme-alabentzako jostailuak erostera, zenbaitetan haurrak ttikiegiak direla eta ezertan jolasten ez dakitela pentsatuz; bestetik, 3 urtetik goragokoentzako jostailuak ongi aukeratzea errazagoa izaten delako, zeren eta dendetan eros ditzakegun jostailu asko eta askok be-raiekin ekartzen baitute seinaturalurik zer adinetarako diren aproposak.

Baina, jostailua haurrari ongi egokitzen zaion ala ez aztertu nahi izatera, 3 urtez beharagokoentzat ezezik 3 urtez goragokoentzat ere (hots, haurrak duen adina duela) balio duen arau orokorra hauxe da: beti ere ahalik ongien begiratu beharko da zertan lagun diezaiokeen jostailuak haurrari bere hezkuntza fisiko, intelektual edo sozialean. Jostailu batzuk, berriaz, beharbada bi edo hiru alderdiri batera erantzungo diete egokiro; eta izango da jostailurik inolako hezkuntz alderdirako baliagarria ez denik. Azken horiek oso kontutan eduki beharko lituzkete guraso guztiek, horrelakoak ez erosteko noski. Hortaz, orain arte azal dutako hausnarketa eta arauak beti ere gogoan ditugula, ikus ditzagun lehen aipatu adinerako zenbait jostailu egoki.

Jaiotzetik 3 urte bitarteko haurrak.

-Ondotxo dakigunez, garai horrek garrantzi itzela dauka haurraren hezieran eta, besteak beste, hauetako ezaugarriak ditu: jaioberria, pixkanaka-pixkanaka,



gorputz zein izpirituaren oinarritzko automatismoak lortuz joango da; haur hori bere gorputzaz eta bere inguruko gauzen "mugimenduaz" jabetuko da; bere inguruko gauzak (seaska, gela, jardina...) aztergai izango zaizkio; eta, azkenik, hitzaren jabe egin eta hizketan hasiko da; bere ikerkuntzak, eta aurkikundeak, ekin-tza hauen bidez emango dira bereziki: begiratu; entzun; miazkatu; gauzak ukitu, haztatu eta hartu; lehenbizi lau hankatan eta gero oinez ibili; hasieran hotsak ebaki eta azkenik hitzegin.

Bizitzaren lehendabiziko garai horretan hurrengoetan baino zailagoa da jostailuak haurraren zein hezkuntz-arlotara (fisiko, intelektual ala sozialetara) zuzentzen diren esatea, arlo horiek ia bereizi ezinak suertatzen baitira ttikiaren. Nola nahi dela ere, alderdi fisikoari egingo diogu kasu bereziki, horrekin batera zenbait ekintza intelektualetan ere erreparatzen dugula.

2-3 hilabeteko garaia. - Aurren-aurreneko jostailua txintxirrina (ximple-ximple izaki) dugu. Zenbait adituk dioenez hobe kolore gorriduna izanez gero, kolore hori omen da-eta haurrak lehenbizi bereizten duena. Kriskitin soinu eta musika melodia xume batzuz hornituriko jostailuak ere eskainiko dizkiogu haurra-

ri. Honen jolasteko era jakina da: begiratu, hartu, bota, miazkatu... Ahoan sartu eta hortzoietan erabiltzeko koloreetako eraztun, giltza eta abarrak ere erosiko ditugu garai honetan. Plastikozkoak zein gomazkoak izan daitezke, eta merkatuan aukera handia dagoela esan behar da.

Zortzi hilabete: Altuera ertaineko kautxuzko animaliak, soinuak jostailuak; ohetik edo aulki gurgildunetik botatzeko moduko jostailuak; "agertu-galdu/desagertu" jolasean erabiltzekoak...

9-10 hilabete inguru: Trapuzko pelota, aukeran ez oso handia; aulki gurgildunari, edo seaskari, lotutako txintxirrina; haustezinezko materialez egindako koloreetako kuboak, ertzak batera markatu gabekoak, haurrak minik har ez dezana.

11 hilabetetatik 15-etara arte: Pelutxeko abere arruntak (katua edo zakurra), beren begiak (haurrak hartu eta irents ez ditzan) eraztezinak dituztelarik; materiale malguak (trapuzkoak e.a.) egindako panpinak, zeren materiale zurrunez (plastikozkoak, e.a.) egindakoak ez baitira oso egokiak haurrak eskuetan manipula ditzan; bainontziko uretan flotatzeko moduko jostailuak, plastikozko zein kautxuzkoak: Kolore biziakiko trapuak, kaxak, hustu eta betetzeko; harilkatzeko bobinak; botilak, beren tapoiak jarri eta kentzeko; paperak, zimurturik edo leun-leun eginda jartzeko... Bistan denez, norberaren irudimenak jostailu mordo bat erants diezaioke nire zerrenda horri. Kontseilutxo bat, hala ere: azkeneko jostailu horiek (tapoiak, hariak, paperak...) haurrari emanez gero, beti ere zaindu egin beharko dugu nola egiten duen jolas, bestela "jostailuren" bat irensteko arriskua izan dezake eta.

15-18 hilabete: Zutabeak eraikitzeko koloreetako dorre eta kuboak; orrialde bakoitzean irudi bana (batibat animaliena) duten liburuak, zeinetan orrialdeak kartoi gogorrez eginda edo plastikozkoak izango diren; panpin eta hartzak, hogei-tamarren bat zentimetrotakoak (batez ere altuera handiagokoak ez daitezela izan); kautxuzko autoak.

21 hilabete: Pilareak egiteko koloreetako uztaitxoak (horien tamainua txikiagotuz joango da serie bat osatuz); zurezko bola edo kuboak, handi samarrak eta ko-

Heziketa

loreetakoak izanik eta aldenik alde zula-
tuak daudela, zuloetatik hari bat pasa-
tzearren; kartoizko edo plastikozko
"adreilu" handiak (pisu gutxikoak, mani-
pulatzen errazak izateko); garraiatzeko
moduko jostailuak: kamioiak, trenak,
gurditxoak... Zurezkoak hobeak dituzue
plastikozkoak baino.

2 urte: Pelota, aukeran ez handiegia;
kolpatzeko balio duten jostailuak ("ha-
rotzaren mahaia"ren gisakoak); enkaja-
tzeko piezak dituzten jostailuak; balde eta
pala, hondarretan jolasteko; koloreetako
zurezko kuboak (tamaina ezberdinetan
izatea eta mordoxka edukitzea komeni
da); zurezko "eraikuntzak"...

2 urte t'erdi: kulunkatzeko moduko
animaliak; balantzaka eta zabunka dabil-
tzan jostailuak; zurezko hainbat piezaz
osaturiko herrixkak; zurezko animaliak...

3 urte: Haurraren motrizitatea gara-

tzeko balio duten jostailuak, edozein era-
takoak direlarik ere, egokiak izaten dira.
Motrizitateaz hitzegiten dudanean, gor-
putz-atalen mugimendurekin erlazio-
naturik dagoen zernahi aktibitateaz ari
naiz hitzegiten, eta arlo fisiko horri kontu
berezia egitea inportantea da oso haurra-
ren gorapenerako. 3 urtez behetiko hau-
rren motrizitatea lantzea garrantzitsua da
noski, baina are garrantzitsuagoa da 3
urtez goitikoena. Dena dela, hiru urtetako
adina mugante jarriko nuke nik, izan ere
adin horretan, motrizitateari dagokionez,
berealdiko lorpena iristen baitute hau-
rrek, "orekaren lorpena" alegia. Egia
esan, hiru urtetakoak geroz eta oreka
handiago lortuz joango dira (edo joan
beharko dute) beren mugimendu guztie-
tan. Hori esanda, aisa asma dezakezue
zeintzu diren adin horretarako jostailu
egokiak: trizikloa, orgatila, pedalak di-
tuzten autoak...

**4 urtetik 5 urte t'erdi bitartekoen-
tzako jostailuak:** Adin horietakoei ezer
baino gehiago korrika ibili, salto egin,
gauzak jaurtiki, edota hara igo eta hona
jaisten ibiltzea gustatzen zaie. Esaldi ba-
tez esanda, mugitzeko grinaz beterik
daude. Jostailu ugari aurkituko duzue be-
ren grina eta afana asetzeko: txirrista;
txintxak; zaldiko-maldikoak; uztaiak;
patinetea; pelota eta baloia: ez handiegi
eta ezta txikiegiak ere. Tamaina egoki-
koak dira haurrek eskuetan hala r ditza-
ketenak; boloak; sokasaltoko soka... Bes-
talde, bost urte inguruko haurren orekak
asko hobetu duela eta, jostailu hauek ere
eskain diezazkiekegu: bizikleta; oinetan
lotzen diren patinak... eta baita zerrenda
honetan jarri gabe dauden zeuek asma
ahalako jostailu guztiak ere!

Xabier Garzia

merka P21 dendak



ASEGURU AGENTZIA
CARLOS RODRIGUEZ
CARDESIN

Goierrri, 12- Tfnoa: 16 14 15
P-21 Komertzialgunea, 2. oina **ORDIZIA**



TXALUPA
ERRETEGIA

Arrain, marisko eta okelak parrilan

P-21 ZENTRU KOMERTZIALA Tfnoa: 88 84 07 **ORDIZIA**



MAIKA

Jostundegia eta oihalak

P-21 ZENTRU KOMERTZIALA
Tfnoa: 88 91 59 - ORDIZIA

Eraikuntzak
P. ARMENDARIZ

Filipinas, 13
ORDIZIA

Tfnoa: 88 49 50

IBAÑEZ

- ✓ Kafetegia
- ✓ Izozkitegia
- ✓ Gozotegia

C/Goiherri. Poligono 21-2º
ORDIZIA



- Telf. 16 12 59



P - 21
Kafetegia

- Sandwix eta gosari apartak

Goierrri Kalea, 21.
Zentru Komertziala.

ORDIZIA



*Ordiziako "Urdeneta
akademia"ren
aurrean garai bateko
umeak. Oraingo
"GOIERRITARRA"-ren
egoitza pareko
baskulan portzierto!*

**A ze flaxa:
Arantzazuko prailea!**



ARGIaren HARPIDE IZAN NAHI DUT:

IZEN DEITURAK:
.....
HELBIDEA:
.....
HERRIA:
P.K.:TFNOA:
HERRIALDEA:
.....
BANKUA/AURREZKI KUTXA:
.....
SUKURTSALA:
.....
KONTUAREN ZENBAKIA:
.....

*Irakur biharko prentsa
gaurtik*

Industrialdea, 1-2 pabiloiak
20160 Lasarte-Oria
Tfnoa: (943) 37 15 45 - (94) 424 46 63
Faxa: (943) 36 10 48

**RENAULT
Ocasión**



GOYERRI GARAJEA, 88 ORDIZIA
Tfnoa: 88 20 05

Eska ezazu gure opari berezia

- Renault 5 GTX, prexiosoa, SS-AB
- Renault 9GTD, ekonomikoa, BI-AJ
- Austin Metro, oso zaindua, SS-Y
- Renault 18 GTS, prezio ona, SS-O
- Nissan Vanette, kanping-erako, SS-AD
- Peugeot 205 XLD, ia berria, SS-AF
- Clio RL 1.2, berri-berria, M-MG
- Renault 12 familiarra, prezio-ona, NA-D

Zelestino Berasategiren bertso jarioa

Donostiatik Zegama eta Goierriko berri. Zelestino Berasategi zegamarrak 69 urte ditu, "Atxatxe" baserrian jaiotakoa eta bizitutakoa dugu, gaztetan artzaina izana eta gerora trenbidean lanean hasia langile gisa. Hurrena, berriz, Pasaiko portuko goarda bezala ibilia, jubilatzen zen arte.

Donostiratu da orain dela 40 bat urte, 45 bat igoal, bere andrearekin, Maritxu Agirre segurarrarekin, bi alaba eta seme bat dituztelarik. Bere alaba Arantxa eta suhiaren bidez lortu dugu testigantza herren hau. Gehiago ere izango zituen hark kontatzeko modukoak!

"Fernando amezketarrari, hil eta handik 100 urtera atera zitzaizkion hurrengo bertsook. Gure aitona ikasi zituen bertsook buruz (orain izango dira ia amezketarra hil zela 240 urte igoal). Eta horrela dira:

Lagun batek enkargatu nau
bertso berriak jartzeko
neronek ere badet idia
aren itzak mantentzeko.
Oek izango dira
Fernando amezketarrarentzako
festa denporan kanta ditzegun
tristura danak kentzeko.

Fernando Bengoetxea
eun urte da'iltzala
gaur oraindio sentitzen degu
ark utzitako itzala.
Jaungoikoari eskatzen diot
neure buruntzat bezala
komeni bada orren anima
zeruan gerta dezala.

Bederatzi seme ta alabakin
bere emazte ta guzi
euskaldunikan bizkorragorik
ezto inok ere ikusi
Ardi batzuk banatu arren
nekez joan igesi
Juezetara aituta ere
askotan bera nagusi.

Bein juezak otsegin zion
"atoz amigo maitia
zurekin izpidek ein beaituta
sillan exeri zaitea
oraingo teman kostako zaizu
irabazitako atea"
erantzun zion "baita berorri
eztan tokitik jatea".

Pobrea zan bada eta ez zegon hari ezer
kentzerik.

Amaika juez aturditurik
beidatu zuen atzea
bainā Fernando serio zegoen
obixpo baten antzera
Apatxon bordan bizitzen zeran
bertsolarie al zera?
Zurekin ezer ere ez det nai,
bazijuazke atzera

Beste batean, ez omen zeukan dirurik, pobreak-eta. Bazkaririk ipinteko ez zeukala hark, andreak, ezer eta, "zu ez apuratu", Fernandok. "Gaur bikarioari kenduko diogu bazkaria. Zuk garrasi haundiak atera, ni makillarekin atzetik eta bikarioaren etxeparera ailegatzen garenean garrasi hotsak atera, ausilio eskatu eta garrasiak egin. Bikariok irtengo du, zer ari garen eta esango diot nik zuk eltzerik ez didazula egosi. Hotsingero digu bere etxera joateko bazkaltea. Hari kenduko diogu bazkaria. Esanda bezala:

Andrearekin alkar hartuta
behin atera zan etxetik
andrea aurretik garrasika eta
Fernando makillarekin atzetik.

Hasarre paperak eginagatik
maite zuen bihotzetik
gaur oraindio jan behar degu
Bikariuen eltzetik.

Ba omen zihoazten han eta:
Bikariuak uko egin zion:
"Gizon, erotu al zera?"

Fernandok:
Gaur eltzerikan ez dit egosi
hortik okartuak gera
Bikariok:
Gurean hainbat izango al da
igo zazute jatera
bainan andrea jotzen badezu
zeure kontuak atera



Joan omen ziran bazkaltzera eta halakotan badakizu, okela arrantxo. Neskameak kaxuela eraman zien eta tajadarik onenak bikarioak parean. Hezurak Pernandoren parean. Bazkaltzen ari zirela, hura erne egongo zan:

Bazkaltzen ari zirala
Bikariuak galdetu
andre gaixoi zer egingo zionun
bazenduen harrapatu?
Nik plato honi bezalaxen
azkar lepoa bihurritu
apaizari hezurak eman
Pernandok mamiak hartu

Aste-santuan mixiolaria joan omen zen Amezketara. Mixiolari hori, sermoia egin eta elizatik irten zuen garaian ikusi omen zuen Fernando hori bluxa txiki batekin. Jendea dena parrez Fernando horri.

"Zein dezue gizon hori?". "Hori, hemen inguruotan dan gizonik bizkorrena da, hizketan. Horrek edozein galderarentzat dauka erantzunik, eta egoki". "Ea; nik egiten diodanari ez lioke erantzungo...". "Gustora hartuko genuke egingo bazenio...". Bai, bai. "Fernando, atoz honaino. Sermoilari honek nahi dizula galderaren bat egin".

"Hara bada, errotarri batekin zerutik honuntza zenbat denbora beharko litzake?"

Behin batean fraile zar batek
zorrotz zion galdetu
errotarriak zerutik hona
zenbait denbora behar du
Baita Pernandok erantzun ere
ez noski behintzet bi ordu
Dotore samar hasi zan bañan

aguro zuen ixildu.

Zenbait denbora behar lukien
orain nua esatera
errotarria prailea balitz
konparazio batera
gaur hamaiketan bota bazuten
ori zerutikan bera
hamabitako etorriko zan
bikarioaren atera.

Gosea

Ehun urte baino gehiago dituzte ber-
sook, gure aitona zenak kantatzen zituen.
Horiek sekula inori ez dizkiot aditu. Per-
nandorenak bai, inork aspaldiko batean
kantatu zituen bertso batzuk. Ez denak, or-
dea.

Bertso berri batzuek

behar ditut jarri
aditzera emateko
ez dakienari.

Begiratuaz ondo
ixkiña daneri
pobreak badauka
istilua gorri.

Gauzak garesti daude
joan dan aspaldian
lanik asko badago
famili haundian.

Ustez saiatu arren
ahalegin guzian
jenderik gehiena
dago mixerian.

Dieta gordetzea on da gorputzean
Amets guxi egiten gau arratsean
triste egonagatik hurrengo goizean
lanari segi behar geroko pozean.

Hona hurrengo beste hau ere. Nik
"Franco-rena" jarri niona. Hori kantatzen
nuen garaian, dedio!, jendea gustora! Gure
garaiko Francorena balitz bezala hartzen
zen. Aurreagoko Franco baten kontua izan
arren.

Batetik errautsa
bestetik gosea
ixkiña danetik
dator mixeria.

Jan gabe ezin bizi
hau da komeria
Franco dala medio
hau da etorria.

Beste batzuk, sekula ez zenuten entzun-
go hurrengo doinu hau. Egun batean anai
bat zekorarekin omen zihuan mataderira.
Eta zekorra, haundia bezain flakoa. Ada-
rrak galantak eta esango dizut. Beste anaia,
soroan, langileekin; lau-ortza izaten da (ez
dezu jakingo lauortzaren berri...?), karea
bota lurra harrotzeko, lauortza pasa eta gero
areekin pasatzen zan; dena mahas-mahas;
karea, mejora izaten da. Bertsolariak biak.
Hola kantatu omen zion anai batek besteari:

Batek lau ortza
ta besteak area
ederki aizerate
zabaltzen karea.
Ori daba neerako kuixidadea
Ori dala neerako kuixidadea.

Beste anaiak:

Pedro Marik bazemak
ezteitako txala
okela gutxirekin
ezurre ta azala

Ia lau urte dituk
orain jaio zala
Aita San Antoniok
bedeinka dezala

Jaunak ikaratzen nau
zekor horren plantak
beste danak bezela
bazitun lau hankak

Tripea haundia ta
atzeak melarrak
buru haundia ta
adarrak galantak

Boz horik sekula aditu dituzue? Doinu
horik ez ditut sekula beste inon entzun.
Zegamako kontuak dira horiek. 200 urte
igoal izango dituzte, aitonarengandik ja-
sotakoak baitira. Beste batzuek ere oso po-
litak baziren baina ez nituen nik ikasi.

Ezkioko Amabirjiña?

33.ean, gerra nahi zuten batzuk eta pre-
paratibotan zebiltzen apaiz-jende zahar ho-
riek eta infernuko deabruk. Horiek nahi
zuten gerra, integristak-eta. Errepublika
zegoen bada eta Errepublika ezin ikusi,
ezin tragatu. Nik ikusia, ez dakit erosi edo
zoratu edo zer egiten zieten.

Amabirjiñak esaten zuela Ezkion; jende
guztia haruntza. Neu ere joana naiz oinez,
amabirjiñatara. Gero, gau guzian lorik egin
ezinda, hango garrasiak!: "Ez olakorik, ez,
ama!", eta holakoak. Emakumezkoak eta
gizonezkoak Ezkiora orduan.

Gure herrian, bazen errepublikano bat,
autobusa zeukana. Hark ez zuen sinisten,
baino egunero, autobusa kargatuta eta kris-
toren diruak egin zituen. Autobusa euki.

Ia urtebete iraun zuen gertakizun hark.
Orduko bi dakizkit, benik. Horik oso bertso
politikak dira:

Milla ta beatzireun ogeita amairu urte
bertso berrik jartzeko enkargatu naute
Ezkioko komeria dala meriante
jendea pranko ere engañatu dute

Or Amabirjiñarik danikan azaltzen
nere buruan eztu inork ere sartzen
neska ta mutil asko panderua jotzen
deabrua ere ote dagon nago pentsatzen.

Horik idatzi zirenean, apaizak, laletxe...!
Gure herrian bazan Don Jose, hura ibiltzen
zen amabirjiñaren asuntoarekin.

Besteok ere nere aitonarengandik dakiz-
kit. Bertso ederrak dira, erdia euskeraz eta
beste erdia erderaz badira ere. Mendaro
Txirristakarenak, Bilintzek jarriak ez bazi-
ran.

Andreak:

Unas canciones nuevas
behar ditut jarri
para los jovencitos
entretenigarri.
Riñendo estuvieron
senar-emazte bi
diciendo disparates
batak besteari.
La esposa decia
senarragaitikan
que no le puedo sacar
ardantegitikan.
No le gusta remojarse
iturrikotikan
se pone caliente
napar etxetikan

Gizonak:

Que habladora eres
emazte nerea
como si no supiera
aurrerabidea
un cacho longaniza
arrautza pareta
para mi caldo de ajo
oligo gabea.

Ormaiztegiko Bainuetxea

Gure herriaren aurrerakuntza eta oparotasunean garrantzi handia izan duten faktoreetako batzuk bere lurretan agertu diren ur aberats eta iturburu ugariak izan dira.

Aurrenez aipatu dugun bezala, mendi artean dagoen harantxo bat izanik, errekatxo eta ur-jauzi ugari aurki ditzakegu Ormaiztegin. Aipagarriak dira gaur egun oraindik burni-ur jariora duten Iraegi eta Lointziko iturriak. Aztergai dugun garaian herrian zehar, orain desagerturik badaude ere, iturri batzuk ba omen zeuden, herriko plazan adibidez, 1866. urtean irekia. Iturri honek Udabarro Goiko inguruan zegoen Troska izeneko iturburutik bideratutako urak jasotzen zituen.

Madozek bere "Diccionario" liburuan ("Diccionario geográfico-estadístico-histórico de España y sus posesiones en ultramar", 1845-1850) dioenez, garai batean bertako biztanleek gatzetan aberatsak ziren Estanda ibaiko urak barazki eta lekariak atontzeko erabiltzen omen zituzten.


Dena dela, atal hontan heldu nahi dugun gaira joaz, zehaztu egin dezakegun garai batean Ormaiztegin aurkitutako ur beltzaz arituko gara.

Estanda ibaiaren ezkerretara, elizatik 500 bat metrotara, arraultz ustel usaina eta kolore iluna zuten urak agertu ziren eta herritarrek "ur beltza" deitu zioten. Ezaugarri berezi hauek bertako jendea ingurueta ugariak ziren ur sulfurosoak izan zitezkeela pentsatzera bultzatu zuen, eta azaleko gaitzetarako erabiltzen hasi zen.

Dirudienez, bertako ura edan eta bainu batzuk hartzearen, ingurua zulatu eta

potzu bat egin zuten. Emaizta ongarriak ikusi eta ur hauen ospea ingurueta zabaltzen hasi zela konturaturik, Ormaiztegiko jauntxo batzuk Itsasoko kapei-lauarekin batera, elkarte bat osatu zuten

D. Migel Albisu sendagilea zuzendari bezala hartu zuen, "temporada oficial" delakoa ekainaren aurretik irailaren 30era irekitzea erabakiaz.



1853. ean. Elkarte honek, uren esplotakuntzarako Udalaren baimena lortu eta Sagasti Berri baserriaren ingurutako lurak erosi zituzten. Hasteko, urte hontan herriarekin lotzeko kamioa egin zen.

1854. urtean 39.168 litro ur barnera zitzakeen depositu bat eraiki zen ura gaineratzen zen puntu. Depositu gainean lauki luze bat osatzen zuen etxe bat eraiki eta bertan zortzi bainugela eta ur iturri batzuk jarri zituzten, baita ur hau bertotzeko kaldera bat ere. Haseran, bainuetxea, hau besterik ez zen, eta horrela jarraitu zuen 1864. urtean jabeak lehengo galeri gainean bi pixu egin eta "L" irudia osatuaz etxe berri bat erantsi zionerarte. Bertan bezero eta langileentzat gelak kokatu zituzten.

Esan beharrekoa da 1861. urtean elkarte bakoitzak, 5.000 pezetaren truke eskubide guztiak D. Pedro Zangitu herriko medikuaren gain utzi zituztela.

1869. urteko apirilaren 10ean erabilera publikorako baimena lortu eta Zangituk,


Gauzak ondo zihoazela eta, 1871. urtean bainuetxetik 700 metrotara, Gabiriko Gabiri Zahar baserri inguruan zegoen "Castañar" iturburua erosi eta bertatik, dutxetan erabiltzeko asmoarekin, ura buztinezko tutuetan bideratu zuten.

Azkenik, 1872. urtean, lau pixutako etxe berri bat eraiki zen, aurrekoari beste aldetik "L" moduan erantsi eta tartean sarrera modura plaza eder bat eginaz.

Etxe berri hau eskaera modernoei erantzuteko moduan antolatu zen. Diotenez, sendaetxe eta atsedenleku egokia zen, eta honako serbitzu hauek eskeintzen zituen:

--100 pertsonentzat prestatutako lehenengo mailako jantoki eder bat; beste bat 20 pertsonentzat, eta 30entzat prestatutako bigarren mailako hirugarren bat.

--Dantza eta elkarriketarako gela eder bat, piano eta guzti. Irakurketarako gela. Kapera. Kafetegia. Billarra eta garaian legeztatutako beste jolas batzuetarako mahaiak. Ondo aireztatutako logela erosoak.



Jan-gela bat

"Es el unico manantial sulfuroso de España en el cual se combinan el oxido de manganeso con el hierro y con el gas sulfidrico, ofreciendo poderosas cualidades reconstituyentes" (Ormaiztegiko Balnearioaren "memoria"tik).

"Universidad Central"eko kimikako katedratikoa zen Don Manuel Saenz Diez-ek 1872. urtean bi iturburu hauen analisi praktikoa egin zuen. Lehenengo iturburuak, "Baños" izenekoak, ur beltza isurtzen zuen, eta iturritasun honen arrazoiak beste iturri batetako burni urarekin nahastea litzateke, kimikari honen uste-tan. Bigarrenak, "Castañares" izenekoak, aurrekoak baino "acido carbonico" eta "sulfidrico" gutxiago izango luke. Beraz, "aguas sulfurosas frias ferromanganife-ras nitrogenadas" bezala sailka daitezke, eta "Castañares"ekoak indar gutxiago izanik, gaisotasun ezberdinetarako sendagai bezala erabili ahal izango lirateke.

Analisi hauen ondoren bainuetxeko sendagile zen D. Migel Albisuk 1873. urtean argitaratu zen txosten zabal bat egin zuen, bertan ur hauen erabilera te-rapeutikoaren berri emanez.

Geroztik, 1893. urtean, D. Fortunato Escribano sendagile zuzendariak esta-tistika-koadro bat argitaratu zuen.

Ura, bainu, dutxa, irrigazio eta edari moduan eskaintzen zen hemen ura. Eda-

tekotan balurrik eta eguerdiko jatordu aurretik hartuko litzateke. Bainua, ura aurrez marmolezko pilatan epelduta. Du-txak, berriz, modu askotara har zitezkeen: eskozes modura, alternatuak, maginalak, intestinalak, ho-tzak, beroak, e.a. Ura presio ez-berdinetan, errelajazio eta ma-saje modura ere erabili ohi zen.


Zerbitzu hauek kanpotar jende asko hurbilerazi zuten Ormaiztegira. Beraz, herria etorki hauei ostatu atsegina es-kaintzeko prestatu zen. Garai hontan irekiko ziren Ezkurdia eta Elozegi fondak.

Denbora aurrera zihoan eran, inguruak ezagutu nahi zituen jendearentzat bidaiak egiteko zaldi-karro zerbitzu, tren- gel-toki, kotxe-alkiler, e.a. prestatu ziren; Loiola, Arantzazu eta Donostiara bidaia asko egiten zirelarik. Herri giroa bultzatu asmoz soinu saio eta festak antolatzen ziren. Udako egu-raldi atseginarekin mendi eta zelaian paseotxoak eman nahi izanda, egonaldi atsegin eta gustagarria pasatzeko aukera izaten zuten bainistek, lasaitasunean ara-zoak ahaztu eta sozial-bizitza erabat ahaztu gabe.

Garai hartan, hondartzar-ako zaletasunik ez zegoenez, Espainiatik jende ugari hur-biltzen zen "Estacion de ve-rano" zeritzaion Ormaiztegi-ra.

Herriko jendeak gogora-tzen duenez, bainista haietako batzuk harremanak izan zi-tuzten bertakoekin. Honela, Intxausti ahizpek jakin erazi digutenez, behiak jezteko garaian bixitara joaten omen zitzaizkien eta beste aitzaki-ren bat jarri ondoren, sukal-dean tertulian egonda errebe-ro deritzan esne aparra edan eta pozik joaten omen ziren.

Beste bitxikeria bat bezala, nahiz eta zein garaitakoa den zehazterik ez izan, bainuetxeko honako tarifa zerrenda hau eskaini dezakegu:



TARIFA DE AGUAS Y BAÑOS

Por cada baño general con ropa	Ptas. 1,75
Por cada baño general sin ropa	1,50
Por una ducha filiforme a la faringe, facial, nasal, etc.	1
Por cada ducha corriente ocular, auricular, etc.	1
Por cada sesión de pulverización directa	1
Por cada inhalación	1
Por una ducha ascendente en butaca	1,25
Por una ducha de asiento con hidro-mezolador	1,25
Por cada ducha articulada para chorros a gran presión	1,25
Por una ducha en columna, regadera o láminas concéntricas ..	1,25
Por una ducha dorsal	1
Por cada aplicación de chorro o ducha solamente	1,25
Por cada ducha circular con regadera ascendente	1,50
Por cada aplicación de la agua-puntura	1
Por el uso de agua en bebida durante la temporada	5
Por cada botella de agua mineral con casco	075
Por cada botella de agua mineral sin casco	035

Bainuetxearekin bukatu baino lehen, esan beharrekoea da gerora Izuzkiza jau-naren eskuetara pasa zela.

Garbiñe eta Elisabet Ezkurdia

Proposamen golfoak



Joe Jackson: Pop freskue gorputzarentzat

Hamairu urte badaramatza dagoeneko musiko britaniarrak bere kantekin txunditzen gaituela, eta bazirudienean jazzaren konplexutasunean eta banda handitan oinarritutako nolabaiteko musika-klasizismo batean asentatua zegoela, bada, berriro harritzen gaitu, zeharo pop den eta, inolako duda barik, "Look Sharp", "I'm the man" edota "Beat Crazy" bezalako bere lehen LP ederrak gogorarazten digun kantu album elegante batekin.

Bere musika-karrerak, azkenaldi honetan, banda sonoroen (Mike's murder, Tucker) sorkuntzak eta orkestazio handietako gaien konposaketak egiteko joera hartua zeukan. Ez ustekoa suertatu da azken joera hau, beraz. Halere, esplikagarria da, diska-etxez aldatu baitu: "Laughter and lust" (Barrea eta luxuria) Virgin etxerako lehen lana du eta bere hoberena eman nahi izan du. "Hit single"n, bere buruarekin konparatzen da hiru minututako kantu pop batekin.

Bere humoreak, letra zorrotz eta guztiak ere ez dute eragozten kanten arregluak ederki asko xorroxtuak egotea, entzuleari zaila izango zaiola erritmoari eta melodiari bakarrik erreparatzea.

Lehen singleko "Obvious song" bezalako kantuan, albuneko gainantzekoen pautan ematen da: kanta libertituak, satirikoak, freskuak. "It's all too much" edota "Drowning"-ek hasieratako Joe Jackson-ik hoberena dakargute. Fleetwood Mac-en "Oh well" kantaren bertsioa egiten ere auzartzen da, baina rumba-afrikar erritmo bihurri bat gaineratuz.

Elvis Costelloekin batera, pop britaniarraren 80. hamarkadako izar distiratsuena dugu; musika gaztearen panoramara fres-

kotasuna eta kanta bikainak ekartzera zetorren "New wave" bataiatutako (eta ondo bataiatutako) mogimendu haren oinordekoa dugu.

Hala eta guztiz, bere hastapenak gailentzen eta kanten edukinak globalizatzen jakin izan du, musiko handi guztiak bezalaxe. Hasera erritmiko eta urduri batzuetatik, soinu aporte ugarietz jabetu da (jazz, latindar musika eta musika orokorra), ia-ia "musikari totala" bilakatu dela.

Nahiz eta EEBB-etan European baino arrakasta gehiago daukan, LP honek Jackson itxuraberrituena itzultzen digu, inoiz baino burusoilagoa, presko eta dotoreagoa, eta sinesten ez baduzu, entzun "Stranger than fiction". Zeuk esango duzu gero.



"Mano negra": munduko martxarik onena

18 hilabetetako itxaronaldiaren ondoren eta azkenapurteko lana zuten "Put a fever" ikaragarriaren ostean azaltzen zaigu, azkenik, Mano Negraren "King of Bongo".

Itxaronaldiak pena merezi du, diskoaren 14 kantak bai benetan direla talde frantziar internazionalenaren "patchanka"ren jarraitzaile amorratuak.

Momentuko neurrietarako kopuru handitxoa, 14 kantetatik 3 bakarrik daude frantsesez eta pare bat baino ez gaztelaniaz. Nazioarteko hizkuntza lege hartu eta ingelesezaren alde egin du apustu "Esku beltz"ak; izan ere, 90.eko munduko biraren ondoren eta beren herriko prentsa musikari esan dionez, "ikusi izan dugu denongana iritsi nahi baldin bada, ez dagoela beste biderik". Polemika habemus.

Mano Chao, koadrilaren lider diskutiezina eta beren kantu gehienek konposatzailea, frantziar kapitalean urte luzeetan bizitzen diharduen Ramon Chao galizar kazetariaren semea da. Berarekin batera, turtarekin, bere anaia Tonio eta Santi Casariego, bien lehengusua, baterian. Bandako

gainantzeko elementuak Pariseko arrabaleko mikrokosmosa bikainkiro ordezkatzeko lezaketan arrazarteko talde ederra osatzen dute.

"Mala vida" zeritzon kantuak eraman zituen famara, bestaldean. Hori bai, bideo galanta batek apoiatzen zuen beren kantu horixe. Gero, dena arrapaladan etorri zen, bestaldean, harunzkaldean eta honuntzkaldean dabilta, Virgin konpainiarekin, eskuak libre asko uzten zieten kontratua zinatuetan.

King of Bongo-k denetarik dauka eta daukana oso ona. LPari izena ematen diona bertatik ateratako lehen singlea da eta berehalaxe harrapatzen zaituen erritmoa du. Bring the fire edo Welcome In Occident

bezalako kantuak adrenalina tiro gogorak dituzu eta The Clash-en indarra dakarkio bati burura.

Konparaziorik egin nahi gabetanik, taldearen soinu orokorra, rythm'n blues amerikarra, 50. eta 60.eko soul-a, rumbak eta berbera soinuaren arteko nahas-mahasa izango genuke. Nahasturik eta giro bero batean, komenigarria den eran zerbitzaturik guzti hori.

Mano Negra, zuzeneko munduko talderik onenetakoa dugu gaur egun eta joandako udaberri partean Sakanako "Illargi" dantzalekuan izan ginen guztiok probatu ahal izan genuen. Zuzenean ematen dute duten guztia eta beren aktuazioa ikusi eta entzun ahal izan zuten ditzosozko guztiak etorriko dira nirekin bat.

Diska berrian, eskenatokian bonba izan litezkeen kantu pare mundial bat dago, "I don't want you no more" eta "Out of the man". "Furious fiesta" ez ahaztu eta, bitxikeria bezala esan, ez dugula uste "Letter to the censors" (Eskutitza zentsoreei) kanta Britania Handiko edota EEBB-etako inongo emisoretan irratiratua izango denik. A ze letra!

Laburbilduz, pop-rocka bereziki anglosajoiengan gauza ez dela frogatzen duen azioa eta LP on bat. Biok izango dituzu eskuratzen baduzu hatzapar-beltzak dituzten aldameneko gabatxo hauen azken lana.

Horrelako esku-beltzak behar ditugu eta ez politikako tejemanejeak ezkututik mogitzen dituztenak.

Kexexo



ERAKUSKETA
SUKALDEKO TRESNAK

Alpe

Mariaratz, 4

20200 BEASAIN

88 86 84

Urdaneta, 68

20240 ORDIZIA

Kirolak Sport

Ski modalitateetan
espezialitatutako denda

Tel.: 88 16 66
Zaldizurreta, 3

Kirolak Sport

K-2

20200 BEASAIN

MIAMI TABERNA

PINTXO HOTZ ETA BEROETAN
ESPEZIALDUAK

Tfnoa: 88 00 15

ORDIZIA

Sukia

ELEKTRIZITATEA

K/ Nagusia, 10
Telefonoa: 88 23 00

20240 - ORDIZIA



SOLOZABAL
AUTOESKOLA
PERMISO GUZTIAK!


- Motorra
- Autoa
- Kamioia

- Trailerra
- Autobusa
- Erremolkea

Etxezarreta 5 (Herri antzokia parean)
Tel.: 16 12 21 - ORDIZIA

URIBITARTE SAGARDOTEGIA

- Kostilla eta txuletetan espezialdua
 - Enkarguak Ordiziako Eroskiko Tabernan
- Tfnoa: 88 83 31



ERGOIENA AUZOA

ATAUN




Sagardotegia

aulia

Aulia-enea
Teléfono: 80 60 66

LEGORRETA (Guipúzcoa)



- Urdaiazpiko eta hestekien banatzailea
- Liburu eta konpakto denda

Urdaneta, 52 Tfnoa: 88 06 40 ORDIZIA

KORTA mariskeria

— Etxeko haztegiak —

Menu berezia (2 pertsona gutxienez)

- ☐ Langostinoa ☐ Txangurroa
- ☐ Almejak ☐ Misera
- ☐ «Añares» cava edo Antina horratzardoa
- ☐ Postrea, kafea, likoreak

GABIRIA

Prezioa: 3.500 pta. (+ BEZ)

Telfn.: 88 71 86



Giro on eta jatorra

Tlf.: 88 20 23
Iturrioz Kalea, 11

BEASAIN

BODEGON GOIERRI JATETXEA

Tlf. 88 00 00
Kale Nagusia, 20 BEASAIN

ARALAR

PAPERDENDA


- Bulego Tresneria
- Ikastolako Materialak
- «Olivet» idazteko makinak
- Fotokopiak

J.M. Barandiaran Enparantza. Tel: 881240
20240 ORDIZIA



Gudarien Etorbidea, 4
Tel. 888511

20240 ORDIZIA
(Gipuzkoa)



Lierria 20214 MUTILOA
Tlf. 80 16 99

- * ETXEBIZITZAK SALGAI ITSASONDON
- * SALNEURRI OSO INTERESGARRIAK

OTEGI

ERAIKUNTZA OROKORRAK

- * 100 ETA GEHIAGO M²
- * TXIMENETA, ANTENA PARABOLIKOA,
- * BEROGAILU ISTALAKUNTZA EGOTIRUK, E.A.

Tfnoa: 88 49 36

ITSASONDO

IZARRAITZ

Larrua eta Kirolak



- ☆ FABRIKAKO SALNEURRIAK
- ☆ MODU ASKOTAKO JANTZIAK

Katea Auzoa, z/g.
"Castillo" Hotelaren parean
Tfnoa: (943) 16 00 57
BEASAIN